


**EKONOMIA** ▶ Egurraren sektoreak eutsi egiten dio

## MAISUA BETI MAISU




JOXE AGIRREK 75 URTE EGIN BERRI DITU ETA PLAZAZ PLAZA SEGITZEN DU



miriam ocariz no.l1.ta rare divinas palabras e-play  
amaia arsuaga levis red vialis munich puma

**ODONTOLOGI  
OROKORRA**

- > Bideo bidezko diagnostikoa
- > Erradiografia digitala
- > Hagin-ateratzeak (azkenaginak...)
- > Endodontzia
- > Peridontzia
- > Garbiketa
- > Aho erreabilitazioa



**HORTZ KLINIKA**

Antonio Rafaniello

389 Koleg.

Enparan 8 - 1 Tel.: 943 81 67 36

**ODONTOLOGI  
ESTETIKOA**

- > INPLANTEAK
- > Koroak
- > Ahoko zubiak
- > Karilak
- > Hortz zuriketa
- > Protesi finkoak eta mugikorak
- > Odontologi tratamendu integralak



**mug i**  
kirolak

**Ez egon geldirik!**



**Hiruko txikian** ▶ Iban Arregi

# Maiatzaren 1eko kristauok

**1** Egun beltza izan zen 1886ko maiatzaren 1a. Zortzi orduko lan-eguna aldarrikatu zen mundu osoan, batik bat Chicagon, eta poliziak hainbat langile hil zituen. 1886tik langileen erreibindikazioak aldatzen joan dira. Gizartea bera joan da aldatzen. Baina... 118 urte pasatu dira egun beltz hartatik, eta gaur, oraindik, langileak kalera botatzen dituzte zortzi orduen alde egiteagatik. Azpeitian duela gutxi kaleratu dituzte batzuk, besteak beste zortzi orduko lan-eguna aldarrikatzeagatik.

**2** Izan ere, aparteko orduak sartu egin behar jendeak, aukeratu dugun bizimoduari, aukeratu dugun kontsumo-joerari aurre egiteko. Eta orain "es lo que hay" esaten dugu, esaten dute ordezkari sindikal askok ere. Eta denak konforme. Baina azpeitiar guztion esku ere badago gizarte-kontsumitzaile-kapitalista honi, ahal den neurrian, buelta ematea, herri-tarrak sujeta aktibo –eta ez pasibo– bihurtzea. Horretara (ere) etorriko ahal da Soreasu-ko proiektu berria (ere)...

**3** Gizarte honetako benetako jainkoa dirua dela esaten da, eta dirua enpresa-jabeek daukate, haiek banatzen dute. Enpresa-jabeak, beraz, gizarte honetako jainko. Herrian bertan baditugu adibideak. Hortxe ditugu, esaterako, herriko tailer handiak, Kyoto gora Kyoto behera, gure osasunarekin nahi dutena egingo dutenak. Edo hortxe, esaterako, Sistiaga erreka harrobia. Eta gu kristauok, behin maiatzaren 1a pasatuta, berriro bigarren masaila jartzeko prest. "Es lo que hay".

## uztarria

### UZTARRIAREN DATUAK ▶

**Argitaratzailea.** Uztarrria Azpeitiko Kultur Koordinadora

**Egoitza.** Julian Elorza Hiribidea 4 behe, eskubia (Azpeitia, 20730)

**Telefono eta fax zenbakia.** 943 15 03 58

**Posta elektronikoa.**

uztarria@topagunea.com

**Posta kutxa.** 227, Azpeitia

**Lege gordailua.** SS-860/2000

**Zenbakia.** 51.a (2004ko maiatza)

**Urtea.** VI.a

**Maiztasuna.** Hilabetekaria

**Web orria.** www.uztarria.com

**Diseinua.** hitzEko

**Publizitatea.**

▶ 699 64 66 01

▶ uztarria@uztarria.com

**Bazkidetza-Harpidetza.** 15 03 58

**Tirada.** 2.400 ale

**Inprimategia.** Gertu

**Azaleko argazkia.** Kepa Urbiet

**Oharra.** Uztarriak ez du bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik



### [u-iritzia]

**08 Inkesta.** Udalak, Soreasu antzokiaren proiektua aurkeztu du. Bilera amaitu ondoren iritzi ezberdinak zeuden.

**10 Gogoetari leiho.** Azpeitia 2020. EHNE sindikatua eta Miguel Mari Lapeira baserriaz aritu dira.

### [u-mamia]

**12 Egur tailerrak.** Azpeitian beti izan dira garrantzitsuak egur tailerrak. Gaur egun ere horrela al da?

**16 Klik.** Azpeitia eta inguruak goitik ikusita, mendi gidarako.

**26 Harrobia.** Sistiaga erreka harrobia Keixeta baserrietatik oso gertu.



12



### [u-jakiteko]

**28 Lakrikun.** Lakrikun antzerki taldeak hamar urte beteko ditu aurten. Urte horien denen errepaso berezia egin dute.

### [u-euskara]

**40 Eskubideak.** Uztarriak hizkuntza eskubideei buruzko atal berria sortu du webgunean, jendeak parte hartzeko.

16



28

UZTARRIA AZPEITIKO HERRI  
ALDIZKARIAREN LAGUNTZAILEAK ▶  
(erakunde publikoak)



Enbido ▶



Pako Aristi

## Azpeitia Bartzelonaren anaia

**A**spaldi honetan Katalunia lezio ederrak ematen ari zaigu euskaldunoi. Carod Roviraren argitasuna, haren helburuak izugarri txalotu dituzte hemen justu kontrakoa egiten dutenek. Ezker independentista gora joan da Katalunian, behera Euskal Herrian. Lehen Gerry Adams baten beharra genuen hemen; orain Rovira baten antzekoa behar dugu.

Berriki beste albiste eder bat iritsi zaigu Bartzelonatik: bertako Udala zezenketen aurka agertu da. Korridetan eraginik ez du izango erabakiak, baina bide berri bat ireki da aurrera begira, urrun irits litekeen bidea, zezenketen basakeria gure artetik ezabatzeraino.

Tradizioari eutsita bizi gara, baina tradizio hori komenientziaz erabiltzen dute agintariak. Munduan gauzak sortu eta desagertu egiten dira. Hemen desagertu ziren oilar borrokak aspaldi, eta? Urola trena ere desagertu zen, beno, kendu zuten agintariak. Hura ere tradizioa zen Azpeitian, inork ez zuen nahi hura kentzerik, baina kendu zuten. Gainera, Urola trenean Azpeitiko zezenplazan baino jende gehiago ibiltzen zen. Azpetiarra goa zen trena, Andaluziatik (eta Espainiatik) datozen zezenak eta toreatzaileak baino; halere, azpetiarrak zena kendu zuten, eta espainola denak jarraitzen du. Herria maite dugu, benetan?

Azpeitiar askori entzungo diozu zezenekiko zaletasuna adierazten; etxean jaso dute, gurasoengandik, eta euren haurtzaroarekin lotuta ikusten dute. Ongi dago. Baina azpeitiar askori entzungo diezu zezenketen aurkako joera adierazten; ankerkeria iruditzen zaie, ez zaie hori festa-osagarri ona denik iruditzen. Iritzi aurrerakoia zezenketen kontrakoa da; alde egotea, aldiz, atzerakoia da, atzera begira daudenen jarrera delako.

Aurrera begira, mundua leunduko baldin badugu, nik zezenketarik gabe ikusten ditut gure festak,

globalki arazoak konpontzeko orduan mundua gerririk gabe ikusten dudana bezala; ikusi nahi nukeen bezala.

Zenbat biztanle ditu Azpeitiak? 13.000 inguru. Zenbat azpeitiar joaten da korridetara? 500 inguru. Gainontzekoak kanpotik datoz. Portzentaia txikia benetan. Horrek ematen al du eskubidea esateko Azpeitia herri zezenzalea dela? Azpeitia herri bertsozalea izango da, baditu bertsolariak, asko eta onak; herri musikazalea da, abesbatzak eta talde rockeroak dauzkalako, diskoak grabatu eta sariak irabazi dituztenak; herri kirolzalea izango da, kirolari asko atera direlako; baina esan al liteke zezenzalea denik? Zenbat torero atera dira? Eta portzentaia hori gazteen artean txikiagoa da. Gazteak ia erabat uko egin dio zezenketei. Saninazio bezperan enparantzan bazkaltzen duten 1.000 gazteetatik zenbat doaz korridara biharamunean, 20 bai? Behin telebistan korrida ondorengo ambientea jasotzera etorri ziren, hemen zientoka koadrila saltoka joango balira bezala: zazpi lagun triste baizik ez ziren atera kameran aurrean.

Herri batek aurrera begiratu behar du, atzetik datozkion gauza batzuk mantenduz, besteak kenduz; hori egiteko beldurra daukan herria beti gertuko da atzean, antigolduta, zakartuta.

▶ **ALDAKETA.** Zezen-plaza parke tematiko bihurtzea litzateke gauzarik ederrena. Urola trenarekin egin zuten: orain turistak datoz bertan ibiltzera. Ez dakit zergatik ezin den gauza bera egin zezenplazarekin: korridak kendu eta Zezenaren Museoa sortu, gero plastikozko zezen batzuk jarri, jendeak torea nola egiten zen praktika dezan, tabernatxo bat ondoan, eta gero toreroen jantziak erakusgai jarri, eta kamisetak saldu toreroen argazkiekin, llaberoak, metxeroak. Turista asko etorriko litzateke urtero-urtero, korridak ikustera baino askoz gehiago, eta plaza horrek korridekin baino askoz diru gehiago emango luke, eta diru gehiago aterako litzateke miserikordiarako. Nik ez diot kalterik ikusten aldaketa horri, dena ona baizik. Europa guztian mirestua izango litzateke Azpeitiaren aurrerabide hori.

HILEKO GALDERA ▶

Ari al da berpizten larunbatetako giroa?

# BERTAKO HARAGIA...



**Beloki**  
Kale Nagusia, 75 Tel.: 943 85 04 62  
AZKOTIA  
Jose Artebe, 21 Tel.: 943 151392  
AZPEITIA



PATXO  
  
EDUARDO BERASATEGUI  
Harategi eta Zerritegia  
Euskal Herriko Haragirik Onenak!  
San Inazio Kaleko 12an  
Urrut. 943 81 14 98



  
*bertako okela*  
HARZUBIA, 26 D  
TEL. 81 60 25  
ETXEOA 15 00 03  
AZPEITIA



**Harategi  
Odriozola**  
Harategi  
Especializatua  
Arana Kalea, 14  
Urrut.: 943 81 1015



**J.B. San Sebastian**  
  
HERRIKO HARAGIA - HERRIKO TXERRIA  
ETXEO URDAIKIA  
FORU HIBILBIDEA, 4  
TFNOA 81 15 94  
AZPEITIA



**ZABALA HARATEGIA**  
  
KALITATEZKO  
HARAGIA  
BUSTINZURIKO ERREBALA, 8  
TFONOA.: 943 811671

## ...GURE HARATEGIETAN



EUSKO LABEL





Manex Beristain

# Apustu maiteak

**B**este larunbat bat, beste mozkor bat aurreikusita. Berrito tabernatik tabernara, gustuko dudan neska ikusteko esperantzaz. Halako batean ikustea suertatzen bazait, zer esan ez dakidala, totelka agurtzen dut. Ridikulua berriz ere. Beste taberna batean, berriro topo egiten dugu, musika xuabea altabozetan eta izerdi hotza eskuetan. Jada mozkorren arrai gertu ikusten dut eta animatuago sentitzen naiz. Ez daukat ezer galtzeko. Ezezko baten aurrean aurrera jarraituko dut, ezingo diot gehiago begiratu, ezingo dut berarekin hitz egin, baina tira. Eta baiezkoa esaten badit? Bai, sentitzen dudana esan behar diot eta kito. Pilota bere tit... teiltuan utziko dut. Banoa....

– Kaixo politte, nahi al den nirekin 'agarraue' dantzatzie?

– Baina ze esatek! Utzikoaldik pakien!

Ai, ai, ai! Ez gaudela Txilen!, Azpeitian baizik! Ez dakit horrelako erantzunik esperoko zenuten, baina horrelako galderarik, hain zuzena eta ausarta. Azpeitian negua ala uda izan beti berdin. Sentimenduak eskuburdinez preso egongo balira bezala diraute, hitz bihurtu ezinik. Eta begirada bihurtzen da bihotzeko min maite hori asetzeko tresna bakarra. Begira-begira jarri eta hasperen eginez... aaahhhh... Baina hortik ez gara pasatzen. Gustura jakingo nuke asteen Azpeitian zenbat bikote osatzen diren. Horrek dakarren guztiarekin, planifikazio oso bat, atakea eta lasaitasunez itxarotea. Klabea? Sentimenduen kanporatzea. Agian ez daramagu odolean ligatze asuntua eta kito. Ez dirudi ausardi falta, lotsa edota beldurra direnik ezintasunaren arrazoiak.

– Bai zea! Hoi dek gezurre, ezti sinisten!

– 100 kiloko bolie! Iyoko eztiñat ba, apustue, afai bat!

– Bale! Naekenien!

Apustua izan liteke azpeitiarron ligatzeko tresna zahar bezain erabilgarrienetako bat izatea. Zita bat apustu baten bidez lortzea ez dago batere gaizki, nahiz eta gero ehuneko handi bat ez den suertatzen guk nahi genuena, saiakerak ekartzen dituen

emaitzak hor egon litezke. Zenbat? Ez dakit, baina ez asko.

Azpeitian larunbat gauetan egiten dira apustu gehienak, euforia, okurrentziak eta abarren laguntzaz. Apustuetan hiru zati bereizten dira: apustua bota, jaso eta jokatu. Apustuak bota, asko botatzen dira, jaso batzuk eta jokatu gutxiago, baina ziur, hala ere, apustu asko jokatzen direla.

▶ **KALKULUAK.** Demagun larunbat gauetan parranda giroan 15 tabernatan ibil gaitezkeela eta taberna bakoitzean gauean apustu bat gauzatzen dela. Guztira gau osoan 15 apustu burutuko dira. Lehen esan bezala jasotako apustu guztiak ez dira jokatzen. Kalkula dezagun jasotako %10 jokatzen dela. Horrek esan nahi du 150 apustu jasotzen direla larunbat gau batean Azpeitiko tabernetan. Botatako apustuak, aldiz, askoz gehiago dira. Botatako %10 jasotzen bada, 1.500 apustu botatzen dira gau batean. Kontua da apustuak bota aurretik pentsatu egin behar direla eta pentsatzen diren guztiak ez direla botatzen. Beraz, pentsatutako %10 botatzen bada, 15.000 apustu pentsatzen dira Azpeitian larunbat gau batean. Litekeena da artikulu hau irakurtzen ari den norbaitek apustuak pentsatzeko ere joerarik ez izatea. Beraz, apustuak pentsatzen dituztenen kopurua murriztu egiten da eta gutxi batzuek larunbat gauero 15.000 apustu pentsatu behar izateak zer pentsatua ematen du. Apustu egingo nuke 15.000 apustu horietatik ez direla bikote asko sortuko Azpeitiko larunbat gauetan.

15 apustu jokatzen dira asteen leku eta ordu desberdinetan, irabazle eta ez irabazleekin. Baina horietatik, zenbat ordaintzen dira? Lehengo kalkuluekin jarraituz, jokatzen diren %10 ordaintzen bada, Azpeitian larunbat gauetan pentsatzen diren 15.000 apustuetatik 1.500 ordaintzen da. 1.500 apustu horietatik %70 afarietan amaituko da; hau da, afari bat egingo da pentsatutako 15.000 apustuetatik. Hau, ordea, ez da hemen amaitzen, afarian berriro apustu bat edo beste pentsatuko da. Pentsatutako horietatik postre orduan pare bat mahairatuko dira, eta bat onartzen bada hurrengo egunetan %70eko aukerak daude beste apustu bat sortzeko.

Azken batean, euskaldunon ezaugarrietako bat eztabaidak apustu batez amaitzea da.

**%90<sup>eko</sup>**  
laneratze ziurra

UNIBERTSITATEA

UROLA  
LANBIDE HEZIKETA

Aurrematrikulazioa  
Ekainaren 1etik 9ra  
Matrikulazioa  
Uztailaren 1etik 7ra

**HONA HEMEN LANERAKO BIDERIK ZUZENENA**



943 85 21 74



943 85 22 65

Altamira Auzoa z/g  
20720 AZKOITIA (Gipuzkoa)  
Faxa: 943 85 28 67  
e-maila: azkoitia@urola.org  
www.urola.org

**Maiatzaren 22an denok gonbidatuta zaudete antolatu dugun ikusleei irekitako jardunaldira**

## Trauskil ▶ Jon Berdejo



## Hau ▶



Aitor Aranguren

## Zorionak

**K**omunikabideek izugarrizko eragina dute gizartearengan eta Uzta-  
rria ez da salbuespena. Dagoeneko 50 zenbaki kaleratu ditu, web  
orria martxan ipini, liburuxkak, *Literatuzta*, *Hitza* bultzatu... eta proiektu  
aberats honek sendotuta eta bizirik dirau. Uste dut denok ados egongo  
garela esatean herri mailako aldizkari bat irekia, plurala, parte-hartzailea  
eta kritikoa ere izan behar dela. Nik, gainera, beste aditz bat behintzat  
ez nioke erantsiko: politikoa. Lehen 50 zenbaki horiei begirada bat  
emanez gero, noizbehinka nabari zaio Uztarriari 'tik' politiko bat, eta gai-  
nera, herrena beti hanka berekoa da. Jakina, sentipen hori guztiz per-  
sonala da, baina nire ustez, arazo hori saihesten asmatu beharko luke.

Zerbaitek egiten bagaitu herri, hau euskara da. Euskararik gabe ez  
gara ezer. Euskara da gure altxorrik preziatuena eta abertzaleok batzen  
gaituen bakarrenetakoa (batzuetan). Alor horretan eta Azpeitian Uztar-  
riak bete-betean asmatu du, izugarrizko lana burutzen ari baita. Herriko  
eguneroko albisteek duten indarrak baliatuta euskara idatzia jendeari  
hurbildu dio eta 'derrigortu' euskaraz irakurtzera. Azpeitiarrok hitzetik  
hortzera darabilkigu gure euskaltasuna, azpeitiarrez hitz eginda euskal-  
dun oso imajinatzen gara, baina azpeitiarrez hitz egitea ez da nahikoa,  
euskararen etsaierik handiena euskaldunok baikara. Euskaraz bizi beha-  
rra daukagu. Oso ondo dago Donostiako Kontxako pasealekua jendez  
betetzea euskararen alde, baina urrats handienak eguneroko urrats txi-  
kietan ematen dira, euskaraz irakurtzeko ahaleginak egitean, notatxoak  
idaztean, DNI/NANaren edo telefono zenbakia esatean, Donostiako  
denda batean sartzean, lanean, kiroletan, taberna eta dendetan...

Nigan behintzat, Uztarriak eragina izan du,  
Zorionak!

## Galdetuz ▶

### Zer iruditzen Soreasuko kultur gune proiektua?

#### GARIKOITZ MENDIOLA ▶

Azpeitian Gazteok Zer?!



"Gu hitz egiteko  
prest gaude.  
Aurrera begirako  
proiektua da eta  
bitartean gazteok

kudeaturiko gunea eskatzen  
dugu guk".

#### JOXE RAMON LARRAÑAGA ▶

Argazki Elkarte



"Behar baten  
erantzuna da.  
Zoritzarra izan da  
hainbeste denbora  
horrelako gauza

baten zain egotea. Hobe, ordea,  
berandu inoiz baino".

#### RAMON ETXEBERRIA ▶

Zine Kluba



"Aurrekontu bat  
egina dago eta  
diru hori gastatu  
egin behar da.  
Herriarentzat

beharrezko gauza bat da eta  
hau egiteko, elkarlana bultzatu  
beharko da".

#### GARIKOITZ MENDIZABAL ▶

Txistulari elkarte



"Orain arte gune  
ezberdinetan ibili  
gara eta oso ona  
izan daiteke  
proiektu hau.

Elkarlanean kutur arloan  
guztioak irabaz dezakegu".

## Apunteak ▶

### GORA.

Udalak Soreasun kultur eta gazte gunea egin nahi du, eta asmoa azaltzeko herriko taldeei deitu die. Guneak Soreasun joan beharko al lukeen galdetu ez dien arren (aurreko legealdian erosi zuen Udalak Soreasu), taldeekin hitz egin nahi du nolakotasunaz eta. Ondo. Batez ere borondate horrekin segitzen badu eta taldeek protagonismoa eta hitza badute prozesuan.

### ZALANTZA.

Hamar urte beteko ditu aurtan Lakrikunek. Lehen ere urte ugari egin zituen Antxietak. Afizio eta borondate handia dute haiek, baina ez dago garbi zein den udal politika antzerkia indartzeko.



Lakrikun Azpeitiko antzerki taldea.

ALAITZ OLAIZOLA

### GALDERA.

Keixetako baserrien eta Altuna y Uria enpresaren artean ez dago adostasunik, baina bitartean Sistiagako harrobia hazten ari da. Eta zergatik ez gelditu?

## Uztarria.com ▶

### Inkesta.

**Herriko erakusketetara joateko ohiturarik ba al duzu?**

- ▶ **Bai.** %2,3.
- ▶ **Ez.** %79.
- ▶ **Gaiaren arabera.** %18,7.

### Orain dagoena.

- ▶ **Inkesta.** Zenbat liburu irakurtzen dituzu urtean?
- ▶ **Eztabaida.** Udalak kultur eta gazte gunea egiteko asmoa du Soreasun. Zein da zure iritzia?

## Zer dio? ▶ Amnistiaren aldeko Azpeitiko mugimendua

# Euskal presoak, herrira!

**A**urten ere heldu zaigu maiatza. Azken hiru urteetan bezala aurten ere laugarren aldiz *Elkartasunez presoak herrira!* eguna izango da maiatzaren 29an. Oraingoan ere festa eta aldarrikapena uztartuko ditugu Elkartasun Egunean. Elkartasuna era ezberdinetan adierazi eta eman dezakegu; ekonomikoki, presoak bisitatzera joanez... Azkenaldi honetan euskal preso politikoen aurka Espainiako eta Frantziako estatuek darabilten zampaketa gogortu egin da; espetxeetan jasaten ari diren erasoaldi gogorak (funtzionarioen eta hauek bultzatutako preso sozialen aldetik), isolamendua, bisiten murrizketa, sakanaketa, gaixotasun larriekin egiten diren gorroto politika gogorra... Hori salatu beharrean gaude.

Bestalde, Frantzia eta Espainiak eskubideak ukatzen dizkiote Euskal Herriari, eta ukazio horrek sortzen du gatazka. Gatazkaren ondorio diren euskal

preso politikoei, beraz, jatorri eta izaera politikoa dute. Haien bi ezaugarri: bata, Euskal Herriaren alde borroka molde askoz aritu izana, eta bestea, kartzelan kolektiboa osatuz esparru eta molde propio batez aritzeko erabakia. Badagokie ondorioz, euskal prozesu politikoan parte hartzeko eskubidea.

Gatazkak badu konponbidea. Justizia, demokrazia eta gure herriaren eskubideen errespetuan oinarrituta. Taxu horretako konponbideak, ordea, preso-en eta gainerako errepresialiatuen egoerak bideratu beharko ditu, amnistia osoa bideratuz.

Bitartean, prozesu politikoan parte hartzeko duten eskubidea bermatzea ezinbestekoa da euskal presoak herriratuak izatea. Beraz, preso-en eskubideen defentsan kalera irtetea ezinbestekoa da eta maiatzaren 29an guztiok dugu hitzordua, goizetik gauera gure elkartasuna adierazteko.

# Azpeitiar apaiz berria

**L**etra hauek kaleratu orduko, Trujillon, Perun izango da Iñaki Zudupe azpeitiarra. Azken bi hilabeteak gure artean igaro ondoren, azken urteetako bizilekura itzuli da. Haraino iritsi zen orain hamar bat urte.

Duela urte batzuk, etxekoak ikusteko egin zuen bidaia zela-eta eza gutzeko aukera izan genuen. Urte mordoska bat igaro da harrezkeroztik. Bere burua eskaini zigun bere esperientziaren berri emanez, Trujillo inguruko bazter haietan egiten zuten lanaren berri emateko.

Bizkaiaren sortutako Fe y Justicia elkartearen kide, Circulo Solidario izeneko gobernu kanpoko erakundearekin lanean ari zen. Inguru haietako herritarren bizi egoerak hobetzen ahalegintzen zirela aipatu zigun. Era guztietakoak ziren beren eginkizunak: adreiluzko etxebizitzak eraikitzen laguntzea; ura jasoko zuten ur biltegiak sortzea; heziketarako bideak eskaintzeko, eskolak eraiki, egokitu eta hornitzea...

Bilera horretan bertan, buruan bueltaka zebilkien beste ideia bat ere aipatu zigun: apaiz egin edo ez, zalantzan omen zuen. Bertako lagunek, izan ere, askotan, egiten zuten lana eskertzeaz gain, beste era bateko zerbitzu eta laguntzak ere eskatzen omen zizkieten. Beren sinesmen biziarekin zerikusi zuzena zuten laguntzak, alegia.

Gogoeta eginez, zalantzak argituz, eta ikasketak borobilduz, urte batzuk geroago, jendeak azaldutako beharrei erantzun nahia, erabaki bihurtu da. Iñaki apaiz ordenatua izan zen, apirilaren 18an, Bilbon Santiago eliz-nagusian, bere elkarrekin eta lagun Agustín ondarrutarrarekin batera. Hilaren 25ean ospatu zuen, gure artean, Eukaristia.

Orain, itsasoa zeharkaturik, han izango da dagoeneko, duela hilabete pare bat utzitako lagunekin batera, bere eskutitzetako batean esaten zuen bezala "aspertzeko denbora gutxi" duela.

## ◀ Eta beste



Kepa Susperregi

## AZPEITIA 2020

### ► Baserria

Nolako izan  
beharko luke  
Azpeitiko  
baserriak,  
nekazaritzak,  
abeltzaintzak...  
2020an? Lurrik  
geldituko ote da  
lantzeko  
soroetarako?  
Esplotazio txikiak  
ala handiak  
izango dira?  
Nolako bizimodua  
emango da  
orduan Azpeitiko  
baserrietan?

# Baserritarrik gabeko Azpeitira?

Gipuzkoako EHNE ► Euskal Herriko Nekazarien Elkartasuna da EHNE elkarte, eta Gipuzkoan Tolosan dauka egoitza nagusia. Azpeitian badu egoitza bat, Iberotarren enparantzan hain zuzen. Bertan bi sail daude: aseguroena (bi langile ditu) eta proiektuena (bi langile).

**M**ende honetan zehar gizarte osoaren joera, nola edo hala, janari merkeagoa lortzea izan da, baserritarra horretara bultzatuz. Joera horretan, ez bakarrik administrazioa, baita industriko sindikatuak, kontsumitzaile elkarteak eta biztanlegoa orokorrean jardun da. Joera horren ondorio negatiboa eta arriskuak ikusten dira, eta sufritzen ari gara. Garaia da joera hori aldatzeko, guregandik hasi eta gizarteko beste instituzio eta erakundeetara zabalduz.

Aurreko guztiaren ondorioz, zein da gaur egun egoera baserrian?

► Egunetik egunera baserritar gutxiago gelditzen gara. Zenbait herritan baserria desagertzeko arrisku bizi dago.

► Produkzioa mantendu edo gehitzen ari da, eta joera handitzen ari da. Baserritar bakoitzak gero eta ariedabehi gehiago ditugu ikuiluan edota barazki gehiago produzitzen dugu. Irabaziak gehitzen ote diren ez dago argi.

► Kontuak egin ondoren, baserritarrok diru publikoaren gero eta menpekoagoa gaude. Ez gara laguntzak jasotzen ditugun bakarrik baina bide horretaz dependentzia oso arriskutsua izan daiteke etorkizunerako. Adibide modura, duela hamar urte laguntzek errenta osoaren %4 ziren eta gaur egun %30 inguru.

► Gure generoa saltzeko arazoak ditugu. Ez dugu preziorik lortzen eta salmenta bide berriak sortzea oso kostoso gertatzen zaigu: kalitate politika nahasia, osasun exijentziak edozein enpresen parekoak, komertzializazio egiturak agroindustriaren neurrikoak edo garatu gabeak...

► Gipuzkoa osoan zehar nagusitzen ari den eredu produktibistak gure etxaldean errentagarritasuna auzitan jarri du: menpekotasuna, kalitatearen galera, ingurumenaren kaltea, aberastasunaren kontzentrazioa, bizi kaliterik gabea.

► Horrek guztiak eraginda, baserritarren artean noraeza handia dago etorkizunarekiko, eta gazteen erreleborik ez da ikusten.

► Gizartean pisua galtzen joan garen nuerrian,

gure administrazioek kasu gutxiago egiten digute. Beraz, politikoen konpromiso falta nekazaritza bezalako sektore estrategikoarekiko garbia da.

► Gizarte hiritarren urruntasuna, axolagabeeria eta konpromiso eza nekazaritzarekiko.

► Konpetentziarik eza Euskal Herriak bere erabakia hartzeko nekazari politikaren inguruan; hiru administrazioetan bananduta gaude.

► Euskal Herri osoan gertatzen denaren isla da Gipuzkoan gertatzen dena.

► Lurraren galera geldiezina da: azpiegitura erraldoien garapenaren ondorioz (autobideak, abiadura handiko trenak, erraustegiak, etxebizitza, eta abar luze eta amaigabekoa), porlanak lurra desagerrarazten du eta ustiatzearen desagerpena eragiten dute.

► **LORPENAK?** Gutxi batzuk zehaztuko ditugu:

► Gizarte hiritarren bada baserriaren aldeko nolabaiteko sentipena, nahiz sarri motza izan.

► Gero eta gehiago, baserrian geratzen den gaztea bere erabakiz gelditzen da eta ez inertzia edota ohiturak bultzatuta. Bada harrotasun puntua.

► Kopurua oso txikia den arren, baserriaren etorkizuneko nekazari kalek arrazoiak asentatzen ari da.

► Herri txikiak nekazaritza proiektuen inguruan auzolana berreskuratu dute; Errezilek, adibidez.

► Baserria osorik transmititzeko oinordekotza lege berria ateratzea errealitate hurbila da.

► Merkaturatze eta komertzializazio bide berria edo zaharberritua zerbait garatzen hasi da.

### ► **ARRISKUA**

Aldaketarik ezean,  
izaera ekonomikoa  
gal dezake baserriak

# Kontrolak eta Europa

Miguel Mari Lapeira ▶ Toberagile baserrian bizi da. 1998tik baserrian egiten du lan; txikitatik ibili izan da bertan. Baserritik bizitzeko etxe ondoan ikuilua egin zuen. Fraisoro baserri eskolan behiei buruzko ikastaroa du egina.



▶ **ZEIN ONDORIO NAGUSI?** Politika orokor bati buelta ematen ez bazaio epe motz batean –2020. urtean, adibidez– Gipuzkoan baserriak egon, egongo dira; baserrietan baserritarrak egongo dira baina izaera ekonomikoa galduko du baserriak eta baserritarrak.

Baserritarrak baino gehiago, baserrien biztanleak izango dira; lurreen ez da lanik egingo, lurraz ez digu ezer emango eta beste herrialdeekiko menpekotasuna orokorra izango da.

Nekazaritza eta abeltzaintza, jarduera ekonomiko bezala, gogoan izango ditugun gauzak izango direla.

Gaur egun egoera zaila da. Azpeitian (Oiartzunen, Elgoibarren, Elgetan edo Amezketan bezala) baserriak iraungo du, bere izaera ekonomikoa mantentzen baldin bada. Bestela, postal eder bat egiteko tresnak izango ditugu, baserri-etxebizitza ederrak, erakusteko modukoak, baina bizitzarik gabekoak.

Gure esku dago geure herriko nekazaritza eta abeltzaintzaren etorkizuna bermatzea. Baina nola? Azokak bultzatuz, bertako produktuak kontsumituz, azpiegitura erraldoiei ezetza emanez, porlanaren zabalpena neurtuz, gazteen sarrera erraztuz.

Azken batean, gure aukeraketa sinple samarra da: nahi al dugu gure herrian baserritarrak eta baserriak edukitzea 2020. urtean?

**G**aur egungo egoera ikusirik ez da erraza 2020an nekazariak izango duten egoera aztertzea. Gauzak ez daude errazak; gero eta zailago egiteko itxura osoa dute, gainera. Jada oso jende gutxi bizi da baserritik; jendea baserrian afizioz gehiago ibiltzen da ofizioz baino.

Aurrera egiteko, lehenik atzera begiratu behar da, ea nolako politika izan duten agintariek orain arte, eta nolakoa izan dezaketen hemendik aurrera. Azken urteotako joera, dena kontrolatzearena da. Guk gaur egun egundoko kontrol pila pasatzen ditugu eta gero eta gehiagora doa hau. Hemendik 20 urtera kontrolak pasatu besterik ez dugu egingo. Guk ganaduak eta barazkiak ezin ditugu edozein eratarazi hazi, baina beraiek, Diputazioak, esan bezala hazteko izugarriko gastuak egin behar ditugu. Hauek eskaintzen dituzten diru laguntzak, berriz, ez dute ezertarako balio. Kalitatea izateko gastuak egin behar dira eta gero kanpotik datozen prezioekin ezin dugu lehiatu. Gaur egun diru laguntza politiko batean gaude murgilduta. Ez gara bizi egiten dugun lanaren ordainean jasotako diruarekin, Diputazioak ematen digun diruarekin bizi gara. Diru laguntza horiek behera egingo balute, baserri lana ezerezean geldituko litzateke.

Diru laguntzak puntuazioaren arabera ematen dituzte eta laguntzak jasotzeko egoera gero eta zorrotzagoa da. 2020ari begira jarriz gero, Frantziaren kasua hona ere iritsiko dela esan dezakegu. Han, diru laguntza esplotazio handiek –hau da, dedikazio osoz nekazaritzan aritzen direnek– bakarrik jasotzen dute. Gainontzekoek ez dute euro bat bera ere jasotzen. Urte gutxira hemen

ere politika bera jarraituko dute eta beste lanen bat duten baserritarrek ez dute laguntzarik izango.

Gainera, orain beste herrialde batzuk Europako Batasunean sartzean, hemengo baserritarren egoera kinka larriarri jarriko da; izan ere, hango produktuen prezioekin ezingo dugu lehiatu.

Gure produktuek proba ugari pasatu behar izaten dituzte. Hori oso ondo dago, horrela kalitatea ziurtatzen baita. Baina kontrol guztiak eta bete beharrezko paper guztiak baserritarrak ordaindu behar izaten ditu. eta une bat iritsiko da baserritar soilak ezingo dutela ordaindu horrelakorik.

▶ **KALITATE ARAZOA.** Kalitateak ere bere arazoak izango ditu. Oraingo pertsonen jaten ahaztu zaigu. Askok nahia izaten dute etxaldeko oilasko bat, nahiz eta gusturik ez izan, biguna delako eta, gainera, merkeago. Gainera, orain jendeak beste gauza askotan gastatzen du dirua eta gero ez du kalitateko janaria ordaintzeko dirurik.

Azken urteotan Urrestilla inguruko baserritar askok utzi diete baserrian lana egiteari, eta hemendik urte gutxira gu eta beste baserrien bat bakarrik geldituko gara. Orain baserritar batzuen artean ari dira hitz egiten behitegi bat egiteko guztien artean. Baina horrek bere gastua du eta irabazi txikia, eta gastu handia suposatzen du horrelako proiektu batek. Baserrian inbertsioak eginez gero, ez da erraza horri buelta ematea.

Zaila da 2020an baserri giroa nolakoa den esatea, baina ez dirudi asko aldatuko denik diru laguntzen politika, eta pixkanaka baserriak apaltzen joango dira. Txalet berrien ondoan geldituko diren etxe zaharrak izango dira.

► Testuak: Ainitze Oruesagasti ► Argazkiak: Ihintza Agirretxe

Azkeneko urteetan beste tailer txiki batzuk ere itxi izan dira. Beraz, krisian al dago egurraren sektorea Azpeitian? Herrian tradizio handia duen sektorea une txarrak ari al da pasatzen? Uztarrak jaso duen informazioaren arabera, ez da hala. Horren adierazgarri da datu hau: antzekoak dira orain dela 13 urteko eta gaur egungo enpresa kopuruak. Beste bi datu: 1. Urola Erdian zur eta altzarigintza da langile gehien dituen sektorea. 2. Egur lanetan aritzen diren 40-50 enpresa ingurudaude Gipuzkoan, eta horie-



tatik erdiak pasa Azpeitian. Eta hori guztia, teknologiaren aurreapenak eta zerbitzu sektorearen indarrak aldaketa ugari ekarri dituzten arren.

Hortaz, nolatan gertatu da Danarena? Hango langileek Uztarrari esan diotenez, ez da itxi sektorearen egoera bera txarra delako, "kudeaketa txarragatik baizik". Enpresa hori duela bost urte sortu zen, hiru lantegiren bat egitearen ondoren. Urrestillan kokatu zen, eta 2002an, tailerraren garairik oparoenean, 103 langile zeuden plantillan. 2003ko abuztutik hasi ziren arazoak. "Ez, ordea, lanik ez zelako falta, kanpotik eskariak zeudelako", esan du Josu Galarraga ELA sindikatu-ko ordezkariak. "Nagusiek obra handiak egin zituzten Danan, inbertsio handiak, eta buelta ezin emanda ibili dira. Harrezkero beheraka joan zen, kudeaketa ekonomiko txarragatik. 2003ko udan bideragarritasun plan bat jarri zuen martxan Danak, eta hamar langile kaleratu zituen enpresak", dio Galarragak.

Dana tailerraren beherakada ikusita, langile batzuk beste lanen bat aurkitu eta lantokia uzten joan ziren. "Han segitu genuen langileak, beste inon lanik aurkitu ez dugulako segitu genuen", esaten du Juanito Aranaga tailerreko delegatuak. 64 langile zeuden itxi zenean. Uztarrria, Dana lantokiko nagusiekin harremanetan jartzen

## Datuak

### TAILERRAK ▶

#### 1991. urtea.

- ▶ Tailer auxiliarrak: 19.
- ▶ Egurrezko altzarien sektorea: 17.

#### 2003. urtea.

- ▶ Tailer auxiliarrak: 21.
- ▶ Egurrezko altzarien sektorea: 17.

### LANGILEAK ▶


#### 1991. urtea.

- ▶ Ez dago datu zehatzik, baina gaur antzera.

#### 2003. urtea.

- ▶ Tailer auxiliarrak: 453.
- ▶ Egurrezko altzarien sektorea: 1.032.
- ▶ Denera: 1.485.
- ▶ Gehien, Danonan: 405.

iturriak: Altzarigintza Fundazioa eta Iraurgi Lantzen



## TRADIZIO HANDIA.

Indar handiko sektorea da egurrarena Azpeitian, ehunka lagun ibili direlako eta dabilatzalako. Adibidez, argazkian ageri den Damasoneko tailerrean, existitzen zenean.

saiatu da, baina ez du lortu haiekin hitz egiterik.

### ▶ PRODUKTU BEREZITUAK.

Egurraren sektorea tradizio handikoa da Azpeitian, eta Jose Luis Garaia izan da horren lekuko bat, beste hainbat eta hainbaten artean. Orain erretiroa hartuta dago. "Hamabi urte nituela, Arana kalean zegoen Joxe Mari Garmendia *Xamartin* lantokian hasi nintzen, pintxe bezala". Xamartinenean bost urte egin zituen lanean. Gero Azkue y Compañía lantokian jarraitu zuen, ondoren Euskalduna Kooperatibako sortzaile-etako bat izan zen, eta 1971an Euskalduna Kooperatibak bat egin zuen Danona Kooperatibarekin. Danonan 22 urte egin zituen Garaiak lanean. Urte asko

egin ditu, beraz, lanean, zuraren inguruko lanetan beti, baina postu ezberdinetan. "Pintxe hasi nintzen, arotzerian, barnizean eta enkargatu bezala aritu izan naiz". Denetik egiten, hortaz.

Baina zur eta altzarigintza tailer-rrak gaur egun eta batik bat gero-rra begira "arrakasta" izan nahi badu, "produktu bereziatuak" eskaini behar dituela uste du Ramon Goenaga, Lasao Altzariak-eko nagusiak. Tailer hori da Azpeitiko bigarren enpresarik zaharrena altzaringintzan, eta etxe-ko altzariak, logelak eta egongelak egur trinkoan egiten ditu. "Jakina, produktuak, berezituak ez ezik, kalitatekoa ere izan behar du. Gure ardatz nagusia kalitateko produktua eskaintzea da. Horren adibide dira ISO 9001 kalitatearen ziurtagiria eta ISO 14001 ingurumen kudeaketaren ziurtagiria. Eta aurrera begira gure eskaintza produktu berezietan oinarritu behar dela uste dut. Horregatik, gure altzaria, altzari ekologikoa bezala ikusten dut", dio Goenagak. "Gaur egungo gizarteak ingurumenarekiko duen sentsibilizazioa dela eta, altzari ekologikoa merkatuan baloratzen den produktua da".

Dena ezin utzi, ordea, enpresen esku, eta erakundeak ere ari dira sektorearen alde egin nahian. Hala, Azkoitiko, Zestoako eta Azpeitiko udalak, Iraurgi Lantzen, Ekiz S. Kooperatiba eta ▶

**AZKOITIA**  
ERLOJU KONPONKETAK  
Arana, 5  
AZPEITIA Tel.: 943 81 47 12

**ATC TORREALDAY**  
aholkulari kontseilariak  
Iberotarren plaza, 7 behea  
Tfnoa: 943 15 05 09  
Faxa: 943 15 16 74  
azpeitia@atctorrealday.com

**ERAKUSKETA:**  
Eliz kalea, 12 - behea  
Tfnoa. eta faxa: 943 81 12 12  
**BILTEGIA:**  
Landeta Hiribidea, 19  
Tfnoa. 943 15 16 66  
20730 AZPEITIA  
E-mail: iturralde@euskalnet.net

**Bainuak eta bainu osagarriak**

**ESKAINTZEN DUGUNA**

Iturgintza  
Berogailua, klimatizazioa, EUB eta berauen mantenu lanak  
Gasa (EG-IV kategoria)  
Erregai likidoak

**ITTURRALDE Iturgintza, S.L.**

**domujā**

Irudiekin, Iraurgi bailararen zerbitzura

**KAITO TELEBISTA**


Grabatutako bideoen kopiak egiten dira

**81 53 35**

## Langile “kualifikatuen” beharra

Zurgintzan eta altzarigintzan lan egin ahal izateko, heziketa eta formazio egokia izan behar da, eta Azkoitia badago horretarako aukerarik, Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitiak esperientzia handia duelako goi eta erdi mailako zikloetan. Egurreko erdi mailako zikloetan zazpi ikasturte eta goi mailakoan bost izan dituzte. “Guztira ehun ikasletik gora pasatu dira hemendik”, dio Juan Inazio Larrañaga ikastetxeko zuzendariak. Arotzeri eta altzarien fabrikazio industrialeko erdi mailako zikloa 1997an jarri zen martxan, eta zur eta altzari produkzioko goi maiko zikloa bi urte beranduago. “Guk ikasleekin lan poltsa osatzen dugu eta lantoki askotatik langile eskaerak izaten ditugu”, dio Pello Baztarrika egurreko irakasleak. “Egurreko erdi mailako zikloak arrakasta handia du. Goi mailako zikloa indartu nahi dugu. Lantokietatik tekniko kualifikatuen eskaerak ditugu, baina eskaera horiek gure ikasle kopurua baino handiagoak dira”, dio Larrañagak. “Kontuan izan behar da, gainera,

zikloek izaera praktikoa dutela, eta ikastetxeak praktikak egiteko instalazio egokiak dituela”.



Urola Ikastolako ikasleak.

“Gerora begira arrakasta edukitzeko, produktu berezituak eta kalitatekoak eskaini behar dira”

**RAMON GOENAGA ▶**  
Lasao Altzariak

“Dana tailerra itxi egin den arren kudeaketa txarragatik, ez lan faltagatik”

**JOSU GALARRAGA ▶**  
ELA sindikatua

» Enbor-rek Altzarigintza Fundazioa sortu zuten 1995ean. Hasieran aktibitate bat izan zuen fundazioak, baina geroko urteetan ia ezer egin gabe egon da. Azken urteetan langabetuentzako ikastaroak antolatzeaz arduratu da. Koldo Larrañaga bertako teknikariaren hitzetan, “ikuspegi funtzional eta sektorial batetik berrindartu nahi da” Altzarigintza Fundazioa. “Hasierako aktibitate itzuli nahi dugu. Altzarigintzak aurrera begirako proiektu batzuk ditu, oraindik guztiz zehaztu gabe daudenak. Oraingoz, Urola Ikastola Azkoitia-Azpeitiarekin formakuntza gaietan elkarlanean ari gara”.

Egurreko sektoreari lehentasuna emanez, lanbide heziketaren sustatzea eta garapena du helburu aipatutako fundazioak. Horretaz gain, eskari eta eskaintzaren arteko egokitze proiektuetan eta Ezagutza Gunea Foroarekin elkarlanean ari da.

► “INDARTSU”. Garai berriak, lan egiteko eta estrategia berriak, hortaz. “Hori nabarmena da —dio Jose Luis Garaia langile erretiratuak—. Garai batetik hona makina asko sartu da egur tailerretan; guk hasiera batean lanaren zati handi bat eskuz egiten genuen”. Sasoiak aldatu arren, ordea, Azpeitian zur eta altzarigintza “indartsu” ikusten ditu hark. Lehen bezalatsu, orduan pisu handiagoa bazuen ere. ◀



**AIZPURU**  
**AUTOAK**

**PEUGEOT**

Landeta Auzoa - Urrut.: 943 81 23 59  
Faxa: 943 81 22 81 - 20730 AZPEITIA



**PILDAIN**  
inmobiliaria

Elizkale, 22 • Tf. 943-812167 • pildain@jet.es




Lore Sortak  
Koroia  
Lore Apaingarriak

Etxeetarako  
zerbitzua dugu



Tel. 943 81 51 87  
Loiolabide, 25



“KOLOREAREN ESPARRUAN EZ DUGU MUGARIK”

**URBISTONDO**  
**MARGOAK**

Salbe Auzunea, 35 behea

20730 AZPEITIA - Urrut.: 943 81 57 81


# hitzeko

euskara eta komunikazio zerbitzuak

**665723979**  
telefonoa

itzulpenak - zuzenketak - normalizazio planak - komunikazioa

## ERDI MAILAKO HEZIKETA ZIKLOA



J.M. Iparragirre B.H.I.  
Santa Barbara Bidea z/g  
Urretxu 20700

Tel./Faxa: 943-721413/721403  
[jmiparragirre@edunet.es](mailto:jmiparragirre@edunet.es)

### Erizain laguntzailea

Osasun familia. A-D ereduetan

#### TITULAZIOA

- Erizaintzako laguntzaile-teknikaria

#### IRAUPENA

- 1.400 ordu (ikasturte bat eta erdi), lantegietan egiten den prestakuntza barne (400 ordu)

#### LANBIDE ETORKIZUNAK

- Ospitaleko erizain laguntzailea
- Lehen artapenetako laguntzailea
- Kontsulta pribatuetan
- Zaharren egoitzetan
- Hortz-kliniketan laguntzailea
- Gaixoen zaintza

#### IZENA EMATEA

- Ekainaren 1etik 9ra, biak barne



Azpeitiko  
mendi gida ▶

**Datuak.**

- ▶ Herriko eta inguruetako 19 ibilaldi.
- ▶ Uztarriak, Lagun Onak Mendi Bazkunaren lankidetzarekin argitaratuta.
- ▶ Aurkezpena: maiatzaren 22an.

# azpeitia

# ZERUTIK

Mendi gidarako herriko bazterrak goitik hobeto ikusteko eta haiei argazkia ateratzeko, Uztarria hegazkin txiki batera igo da; ederrak parajeak!



## IZARRAITZ MAGALA.

Izarraitzaldearen ikuspegi ezin hobea goitik ateratako hori. Bistan den bezala, Azpeitia eta Azkoitia elkarrengandik gero eta gertuago daude. Izarraitz mendikatea da nagusi, ordea.



## LAPATX.

Landetatik Errezil bidean dagoen Lapatx zabortegiari ateratako argazkia. Landetako industrialdearen zati bat ere ederki ikus daiteke bertan.



## LOIUN PRESTATZEN.


Hegazkin txikia, aireratu baino lehen, dena prest jarri behar da, eta pilotua guztia gainbegiratzuz. Eta nola ez, gasolina bota behar. Loiuko aireportua zuten irteera.

## ERNIO ETA INGURUAK.

Azpeititik gertu, Izarraitz aurrez aurre duela, horrela ikus daitezke Ernio tontorra eta bere inguruak, azpian Errezil duela. Eguraldia bikaina zen eta bailara hori are ederragoa horrela.

## MENDI GIDARAKO, ERNE.

Baina bidaian dena ez zen irria eta jolasa. Azpeitiko mendi gidarako argazkiak ateratzea zen helburua. Argazkian, Angel Mari Etxeberria, kamerarekin, adi.



## KOSTA.

Loiutik Azpeitira kostatik inguratu ziren hegazkinean. Bizkaiko eta Gipuzkoako itsas labar eta hondartza ederrak ikusteko aukera izan zuten. Argazkian, Gipuzkoako itsasaldea.



## URTEGIA.

Goitik begira, erraz joaten dira begiak Nuarbeko urtegiara. Urrutitik ikus daiteke. Mendi artean handia eta urez bete-bete eginda ikusten da.



1.000

## BAZKIDE HELBURU UZTARRIAK.



2004. urtean zehar 800 bazkidera heltzea zen Uztarrria Kultur Koordinadoraren helburua, baina kopuru hori dagoeneko lortu dugu, apirilaren hasieran egin zelako 800. bazkidea. Uztarriak eta Baitek azaroaren bukaeran bat egin zutenean, koordinadorak 690

bazkide zituen, eta orduan jarri zen 800era iristeko helburua. Azkar lortu da; euskara, kultura eta komunikazioko proiektu honek duen babes handiaren seinale da.

Orain, aurtun 1.000 bazkidera iristeko erronka jarri du Uztarriak. 824an goaz.

## Karteldegia prestatzen

Uztarriak plazan kultur karteldegia jartzeko proposamena egin dio Udalari (aurreneko aldiz 1998an) eta honek ongi ikusi du. Oraindik ez dago lotuta, baina Uztarrria ari da lanean: diseinuarekin...

## 2003ko laguntzak orain

Uztarriak orain jaso ditu 2003ko diru laguntzen Udalarren, Gipuzkoako Diputazioaren eta Eusko Jaurlaritzaren parte bana. Oso berandu da.

azpeitiko mendi gida  
LASTER

**U**ztarriak, Lagun Onak Mendi Bazkunaren lankidetzarekin, Azpeitiko mendi gida egin du.

## EZAUGARRIAK ▶

**Orrialdeak.** 100.

**Ibilaldiak.** 19. Denak ere herrikoak eta ingurukoak.

**Zailtasuna.** Oro har, erraz egiteko modukoak. Bi-hiru ordukoak batez beste.

**Atalak.** Ibilbidearen argazki generala, eta bidea markatuta, eta, azalpen gisa, testua. Horretaz gain, ibilaldi bakoitzeko jakingarriak: pertsonaia, historia, pasadizoa, eraikina...



Mendi gidako ibilaldi bateko orrialdeak. Hiru orrialde ditu bakoitzak.

**Kolorea.** Dena koloretan.

**Formatoa.** 21 x 14,8 zm. Anillekin.

**Tirada.** 1.000 ale.

**Ibilaldietako testu egilea.** Josu Izagirre, Lagun Onak-eko kidea.

**Argazkilariak.** Batez ere, Juan Joxe Agirre eta Angel Mari Etxeberria.

**Argitaratzailea.** Uztarrria.

## AURKEZPENA ▶

**Noiz.** Maiatzaren 22an.

**Non.** Lagun Onaken egoitzan bertan.

**Ordua.** 12:00.

## SALGAI ▶

**Zenbatekoa.** 12 euro.

**Bazkideek.** Uztarriako eta Lagun Onakeko bazkideek erdi prezioan.

U

824

bazkide gara dagoeneko Uztarrrian; eskerrik asko denei

## egin zaitez bazkide UZTARRIAN



## Zure datuak Uztarriari helarazteko aukerak:

- ▶ Julian Elorza Hiribidea 4, beheka eskubia (Azpeitia, 20730) ▶ 227 posta kutxa, Azpeitia  
▶ uztarrria@topagunea.com ▶ Telefonoa (eta faxa): 943 15 03 58 ▶ www.uztarria.com

## IZEN-ABIZENAK ▶

## HELBIDEA ▶

## TELEFONOA ▶

## KONTUKO 20 ZENBAKI (harpidedunek ez) ▶

## NAN edo EHNA ▶

## HERRIA ▶

## E-MAILA ▶

## BAZKIDEAK ▶

**Urtean.** 24 euro.

## Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.
- ▶ Imanol Elias eta Patxi Altuna biografiak.
- ▶ Azpeitiko efemerideak, erdi prezioan (nahi baduzu).
- ▶ Mendi gida, erdi prezioan laster (nahi baduzu).
- ▶ Literaturtza.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

## \*HARPIDEDUNAK ▶

Uztarrria diruz lagundu nahi ez baduzu.

## Jasoko dituzu.

- ▶ Uztarrria herri aldizkaria.
- ▶ Urola-Kostako Hitza.

# JOAN...

## Gurean ▶

**ASIER SERRANO**

▶ musikari eta poeta

## “Literatuzta ezagutzeak poztu nau”

**A**sier Serranok apirilaren 11ean zuen hitzordua Sindikatu Zaharrean. *Literatuzta*-k 2. liburuxka aurkezteko antolatu zituen ekitaldien barruan eta hitzaldi musikatu eskaini zuen.

### Lehen aldia al da Azpeitira etorri zarena?

Proiektu honekin bai. Bestela beste hitzaldi batzuk ematen eta kontzertuak eskaintzen izana naiz aurretik ere.

### Zer eskaini duzu?

Proiektu hau, Euskal Idazleen Elkartetik bideraturikoa da. Musika eta literaturan emaniko ibildidea agertzen dut bertan.

### Zer iruditu *Literatuzta*?

Garai batean horrelako talde batean hartu nuen parte etanik uste ondo dagoela gazteak horrelako proiektu bat martxan jartzea. Poz hartu dut gainera, uste bainuen galduta zeudela horrelako ekimenak. ◀



## ‘Pausoz pauso’ jendetsua

Urola-Kosta eskualdeak elkartasun handia erakutsi zuen apirilaren 4an euskal preso politikoekiko, jendea asko ibili baitzen *Pauso pauso* ekimenean. Goizean abiatu zen Zarautzetik eta Azkoitian bukatu iluntzean. Azpeititik arratsaldean pasatu zen. Antolatzaileak gustura agertu ziren herritarren erantzunarekin.



## Soreasuko proiektua

Apirilaren 22an egin zuen Udalak Soreasu antzokiko proiektuaren aurkezpena; kultur eta gazte gunea egin nahi du. Jakin-mina sortu zuen bilerak. Uztarriak prozesuan taldeen protagonismoa eskatu zuen.

## Lehen idi demak zezen-plazan

Apirilaren 2, 3 eta 5ean jokatu zen I. Pastorkua idi-demak sariketa zezen-plazan. Sariketa horretan Azken Erregetikoak izan ziren irabazle.



## Larrañaga irabazle

25. aldiz antolatu du aurten Kutxak karnabaletako soka-muturraren argazki lehiaketam, eta azpeitiar batek irabazi du: Joxe Ramon Larrañagazk. Antxieta Etxean egon da erakusketa.



**APIRILAK 4** ▶ Iñaki Alberdik Rally Sprinta irabazi zuen, Ikasberri Azpeitiko Ikastolak antolatuta.

**APIRILAK 5** ▶ Andoni Aranaga txirrindulariak Euskal Herriko Itzulia utzi egin zuen lehen etapan, arazo fisiko batzuk zirela eta. **APIRILAK 5** ▶ Azpeititik Lasaora ibiltzen den trenaren denboraldia ireki zuten.

**APIRILAK 12-17** ▶ Zapo Txokok antolaturiko V. gazte astea ospatu zen. **APIRILAK 19** ▶ Iñaki Azkue bermepean aske geratu zen; manifestazio batean liskarrak sortzeagatik akusatuta zegoen.

**MAIATZAK 8** ▶ 1961eko kintakoen lagunarteko eguna egingo da. **MAIATZAK 8** ▶ Losintxa lehiaketan parte hartzeko azkeneko eguna; aurten ere Azpeitiko Mikelats euskaltegiak antolatu du. Hilaren 15ean egingo da sari banaketa. **MAIATZAK 13-14-15** ▶ Mendi orientazio ikastaroa Lagun Onak Mendi Bazkunak antolatuta. **MAIATZAK 19-20-21** ▶ GPS ikastaroa Lagun Onak M.B.k antolatuta. **MAIATZAK 30** ▶ Xoxoteko eguna izango da; mendi astea aurreko egunetan egingo da, elkarteak berak antolatuta.



## ELKARTASUN EGUNA 29-AN.

*Elkartasunez, euskal presoak herrira!* lelopean, laugarren urtez Elkartasun Eguna antolatu dute.

**MAIATZAK 29** ▶ Egun osoan ▶ Plaza Nagusian egun osoan, eta arrasalde Olazko Amaren plazan gaztetxoaren gunea ▶ Euskal presoak Euskal Herrira! plataformak antolatuta

JAIONE ALBENIZ ▶ Titiriteroa

# “Denean bezala, **hemen ere ikasle guztiak neskak izango dira**”

**Z**apo Txokok urte osoan ikastaro ezberdinak antolatzen ditu. Oraingoan sabel dantza ikastaroa antolatu du. Jaione Albeniz azpeitiarra izango da irakaslea bigarren urtez. Hark Sebastopol Titiriteroetan dihardu lanean. “Gauza ezberdin asko egiten ditugu. Kalejirak, ipuin kontaketak, sabel dantza... Gero horiek guztiak irakasteko eskola bat ere badugu eta ikastaroak ere ematen ditugu Azpeitian bezala beste herrietan”.

Aurten bigarren aldiz eskainiko da sabel dantza ikastaroa. Izan ere, iazko udaberrian ere antolatu zuten. Orduan izandako harrera ikusirik, aurten berriro antolatu dute.

“Oraingoz, hamabost ikasle inguru izango ditut. Denak neskak, beti gertatzen den bezala. Izan ere,

normalean oso kasu arraroetan ematen dute mutilek izena”, dio Jaione Albenizek.

Maiatzeko ostiral arratsaldeetan izango dira dantza klaseak. “Hilabeteaz ezin da dantzan ongi ikasi, baina gorputza pixka bat nola mugitu ikasteko adina ematen du. Hasierako klaseak nahiko kaotikoak izaten dira, zaila egiten zaigulako gerri-buelta alde batera eta bestera mugitzea. Baina pixkanaka jendea soltutzen eta biguntzen joaten da”.

### MAIATZEAN ▶

#### Sabel dantza ikastaroa.

▶ 18:00etatik 20:00etara.

▶ Zapo Txokon.

▶ Zapo Txokok antolatuta.

## ...ETORRI



### Besterik ▶


#### MAIATZAK 13 ▶

#### Bidezko merkataritzari buruzko hitzaldia.

▶ 20:00.

▶ Aitonena I.

▶ Misio taldea.



#### MAIATZAK 10-28 ▶

#### Diari Estudioko ikasleen erakusketa.

▶ 18:00-20:00.

▶ Astelehenetik ostiralera.

▶ Antxieta Etxea.



JOXE AGIRRE ▶ bertsolaria

# “Gazteekin gustura jarduten dut bertsotan, ikaragarri jatorrak dira”

▶ Testuak: Amaia Mendizabal ▶ Argazkiak: Kepa Urbietta

Datua ▶

75

## URTE, ETA SASOIAN.

Apirilaren 13an egin zituen Joxe Agirrek 75 urte, eta oraindik ere hor segitzen du, bertsotan, plazak egiten. Bizi-bizi jardun ere.

**A**pirilean, 75 urte egin zituela eta, elkarrizketa bat baino gehiago egin zituzkion Joxe Agirreri, eta Uztarrria hartu zuen bezain atsegin hartu bazituen besteak, ez dira kexatzeko moduan izango.

**Bertsozaleasuna sehaskatik omen datorkizu, aitonak abestutako bertsoak direla eta. Hala da?**

Bai, bertsoekiko afizioa orduan hasi zen. Gure aitona ez dut uste tabernan bertsotan jarduten zuen horietakoa izango zenik, baina zaletasun handia zuen, eta zaletasun hori niregan txertatzen asmatu zuen, nik txiki-txikitatik, sehaskan nengoenetik, eskatzen omen bainion behin eta berriz bertsoak kantatzeko. Dena dela, berak egindako bertsoak ere ba omen zituen, negu txarra izan eta ardien gorabeheran-edo ateratakoak.


**Ona al zen bertsotan aitona?**

Ez zuen inoiz nahi izaten bere bertsoak kantatzea. Izan ere, ikaragarri lotsatia zen, eta hura ez zen inoiz ausartuko inoren aurrean berak egindako bertsoak abesten. Baina nik uste dut, beste zenbait bezala saiatu eta ausartu bultzatuz, dezenteko bertsolari ona izango zela. Ardien inguruko bertso horiek ere oso txukunak omen ziren. Pena galanta daukat orain bertso haiek galdu izanarena.

Izan ere, nik hamabiren bat urte nituela hil zen aitona, eta artean ezin izan nituen ikasi. Gainera, bere bizitzako azken urtean burutik joanda eman zituen. Garai hartan dena bekatu eta infernua zen, eta Azpeitiko garai hartako erretoareak ere nahiko zorrotza izan behar zuen, eta gure aitona azkenean beldurrez ito zen. Pentsatzen jarri eta hala esaten zidan: “Gauzak horiek esan bezala badira, niretzat ez da salbaziorik izango!”. Eta horrela egonda gizona, azkenean bertsoak galdu egin ziren.

**Afizioa betidanik izan arren, ordea, zeu bertsoak kantatzen nola hasi zinen?**

Lagun artean-eta nahiko gazterik. Elkarri puntuak jartzen ibili ohi ginen, jai gauetan-edo etxerako bidean gindoazen bitartean. Baina plazara jauzia ematea asko kostatu zitzaidan; plazan nahiko berandu hasi nintzen. Izugarritzko beldurra ematen zidan. Ausartagoa izan banintz, hasi nintzenean baino askoz ere gazteago ekin izango nion plazan abesteari. Joxe Lizaso eta inguruko bertsolariekin jarduten nuen bertsotan tabernako babesean, baina gero, Lizasok “hi, hara edo hona plazan bertsoak abestera joateko norbait behar diat, Joxe, etor hadi nirekin!” esaten zidanean, beti



## ORANDAN.

Oranda baserrian jaio, goitizen horixe hartu ordutik, eta hantxe bizi da Joxe Agirre.

ezetz esaten nion, beldurragatik. Gero, noizbait hasi nintzen pixkanaka-pixkanaka inguruko auzoetan abesten: Madarixan, Martiten... Jakineko lekuetan. Orduan Aginagako txapelketa iritsi zen, 1959an, nik 29 urte nituela. Lehiaketa hartan txapela neuk eramane nuen, eta urte hartako udan ordu arte egindako saio guztiak baino gehiago egin nituen. Orduantxe hasi nintzen ni benetan plazak egiten, Aginagako txapela eta gero. Ate asko ireki zizkidan, jende asko ezagutzeko aukera eman baitzidan.

### Berandu samar bertsolaritzan hasteko, ezta?

Orduan, ordea, ez zen orain bezala izaten. Gaur egun oso gazterik hasten dira. Gainera, pentsatuko duzu ba etxean, bertsotan ikusiz gero, errietan egiten zigtela! Etxera berandu joanez gero, amak beti gauza bera esaten zidan: "Non ibili haiz, Joxe! Bertsotan eta txorakeriatan izango hintzen orain ere!". Garai hartan, izan ere, bertsolariak fama txarra zuen, parrandazale edo golfoarena, badakizu. Jendeak horixe zuen buruan sartuta eta.

### Baina herrian ba al zegoen bertsolaritzaren inguruko girorik gazteen artean?

Bai, bai, bazegoen! Baina gaur egungoarekin alderatuz oso desberdina, ez zen gaur adinakoa. Orain, ikas-tetxeetan eta haurrari txiki- ▶

» txikitatik sorrarazi egiten diote bertsorako zaletasuna. Garai hartan, zaletasunak zeuregan sortu behar zuen, eta bertsolariek zuten fama ikusirik, askorik ez zuen laguntzen!

**Zu, Joxe, tabernako edo plaza-ko bertsolaria izan bazara ere, inoiz ez zara txapelketa bertsolaria izan, ezta?**

Ez ezazula pentsa! Plaza gizona ere ez naiz izan ni, txarra naiz plazarako! Izan ere, urduritasuna izan dut etsai nagusia. Gainera, orain sekula baino gehiago. Denborarekin ohitu edo ikasi egiten omen da, baina niri ez zait halakorik gertatu. Ni tabernan edo bertso afarietan moldatzen naiz ondoren. Garai batean halakoxe nerbioak izaten nituen, edozein saio-aren aurretik jandako guztiak bota egiten nituela. Orain ez dut halakorik egiten, baina nerbioak igual-igual jarraitzen dute hori. Arazo hori dela eta, txapelketetara ere gutxi aurkeztu izan naiz, oso txarra izan naiz horretarako. Aginagakoa nabarmendu beharko nuke, 1959koa. Gero, urte hartan bertan, udazkenean beste txapelketa batera ere aurkeztu nintzen, Ordizian. Baina ez nuen ezer esanguratsurik egin, orduan ere nerbioetatik zeharo gaizki ibili bainintzen: denbora guztia ura edaten, eta denbora guztia egarriak.

**Baina jendaurrean bertsotan jarduteak halako zirrara edo pozen bat ere sortuko du ba!**

Bai, bai. Gustura ere jardun izan dut, baina hasierako momentuan asko kostatzen zait beti.

**Puntuak jaun eta jabe izatearen fama duzu. 'Mozketaren maisu' ere deitu izan dizute...**

Ez da hainbestearinokoa izango! Jardun izan dugu, eta ez ginen

## Bi une

"Plazan asko ibilitakoa izan baldin banaiz ere, nerbioen arazoa izan dut beti hori. Nahiago dut lagunarteko bertsoa. Uztapide zenari ere aspaldi entzun nion nik bertsotan bi momentu bakarrik zirela onak: bata, saio baterako abisua jasotzen, 'nirekin gogoratu dituk!' pentsatzen baituzu; eta bestea, kobratu eta etxera abiatzeko unea. Bitarteko guztia... Baina bertsotan hasi behar denean sekula ez dut gogorik izaten. Gogoratzen naiz behin Azpillaga eta biok bertso-saioa genuela, eta azkeneko momentuan abisatu zigutela saioa bertan behera gelditzen zela. Izugarritzko poza hartu nuen nik!".



## Landeta

"Landetako unibertsitatearena dena gezurra da. Azpeitiko bertsolariok Landetan elkartzen ginen, merienda-legaia edo egiteko, baina sekula ez ginen propio bertsotan egiteko elkartu. Bertsotan askotan jardun izan genuen, hori egia da, baina inoiz ez ginen horretarako gelditu".

gaizki moldatzen, baina ez dakit besteak baino hobeto ere moldatzen ote ginen.

**Landetan osatu al zen Imanol Lazkano, Joxe Lizaso eta Joxe Agirre hirukotea?**

Ni Lizasorekin eta Lazkanorekin bertsoaren bitartez egin nintzen lagun. Lehen aipatu dudana bezala, Lizasorekin aurreneko tabernan-eta jardun izan nuen bertso-tan, Korralen, Etxe-Zurin eta hauetan, bertsozaleak elkartzen ziren tabernak baitziren. Imanol Lazkanorekin, berriz, hark bere liburuan aipatzen duen bezala, Etxe-Zurin egin genuen aurreneko elkarrekin bertsotan; San Sebastian eguna edo horrelako zerbait izango zen. Bi koadrila elkartu ginen bertan: Izarraizpekoa bata, nirea; eta Landetarrena bestea, Imanolena. Gure koadrilek ahariak plazara botatzen diren moduan bota gintuzten elkarren aurka, eta hortxe egin genuen geure lehenengo saioa. Luzerako eman du horrek gero!

**Zeuk lehen aipatu duzunaren bidetik, gaur egun bertsolaria, plazan baino gehiago, bertso-eskolan hezten da.**

Bertsoa asko aldatu da garai batetik hona. Bada gazteen bertso-erri hau gustukoa ez duenik ere. Batzuek ulertzen dute berria, desberdina izanagatik ere, ona dela; baina beste batzuek, oraindik, "zuen garaiko bertsoak bai, Joxe! Haiek hituan onak!", esaten dute. Nire ustez, berriz, oraingo bertsolari gazteak gu baino hobekak dira. Dena dela, denak oraingoarekin bakarrik konformatuko baldin balira, guk ez genuke lekurik izango. Eta oraindik guk ere badugu bertsotarako gogoal!

**Bertsoa ere bestelakoa da, ja-**

**soagoa beharbada. Zuen jarduna ez al zen zirikatzaileagoa, adar-jotzaileagoa?**

Bai, hori behar bada aldatuta dago gaur egun. Orain ez dago garai batean adinako ziria sartzeko joera hori. Dena dela, oraindik badaude bertsolari adar-jotzaileak. Bakarra izendatzea ondo ez badago ere, Irazu, adibidez, ez da zaharra izango, baina badaki ederki nola adarra jo. Asko dira bizitasun hori duten bertsolariak, hori norberaren joeraren arabera izango da. Bertsoari berari dagokionean, aldiz, egungo gazteek guk egiten genuena eta egiten duguna baino bertso perfektuagoa osatzen dute. Prestakuntza ere handiagoa izan dute.

**Eta nolakoa izan zen zuen prestakuntza?**

Bertso paperak-eta irakurtzen genituen. Orduan ezta burutik pasatu ere ez zitzaigun egiten bertsotan ikasteko eskola bat egoterik bazenik ere! Nik uste bertsolariak, alde batetik, berezkoa izaten den zerbait hori behar duela. Ondoren ikasi ere egiten da, jakina. Ikastearen poderioz, gai baten inguruan hiru bertso askok egin ditzakete. Baina afa-londoren, bertsoak bota eta bota hasitakoan, eta jarduna luzatu eta luzatu doanean, gauzak aldatu egiten dira. Horretarako bai behar dela berezko sena, ikasitakoarekin ez da nahikoa. Garbi dago Egaña edo Irazu bezalako bertsolariak eskolara joan gabe ere bertsolari onak izango zirela.

**Zu garai bateko bertsolaritzaren ondorengo bezala aurkeztu izan zaituzte, Uztapideren bidearen jarraitzaile. Hala dela uste al duzu?**



Nik Uztapide oso gogoko nuen, ikaragarri gustatzen zitzaidan. Akaso Basarri hobia izango zen, baina Uztapideren bertso legea desberdina zen, eta nik nahiago nuen Uztapide. Gure garai bateko bertsolari jite hori Xebaxtian Lizasori ere ikusten diot. Hura zaharren eran, berrienean eta edo zertan moldatzen da ondo.

### **Herrian ere badira bertsolari gazteak...**

Ez nioke beste inori ezer kendu nahi, baina niri Jokin Uranga, esaterako, beti gustatu izan zait bertsotan, oso ona da bertsotik egiten. Harekin ere jardun izan dut, gutxiago edo gehiago.

### **Nola ikusten duzu oraintxe aipatu duzun Jokin Uranga azpeitiarrak eta beste bertsolari batzuk garai bateko bertsolaritzara hurbiltzeko asmoz martxan jarritako Zaharrek Berri Tour ekimena?**

Ondo. Gai-jartzailerik gabe, ahal den bezala moldatuz... Gaur egun bertsolari asko txapelketari begira egoten dira, horretarako prestatzen; akaso gehiegi. Hori bai, nik ez dakit nola prestatzen diren. Egia esan, ez dakit hori egiterik ere ba al dagoen.

### **Zeuk segitzen duzu oraindik ere plazak egiten...**

Apirilean Zumaian izan nuen saio bat, hurrengoan Zarautzen daukat bestea... Oraindik dezente ibiltzen naiz, beharbada merezi baino gehiago. Ni baino bertsolari hobeak badira. Gazteekin ere gustura jarduten dut bertsotan. Ikaragarri maite ditut gazte horiek, eta haiek ere bai ni. Hemen gazte jendea ikaragarri jatorra da.

### **Nolako etorkizuna ikusten diozu bertsolaritzari?**

Bertsolaritza sekula baino gorago dago orain. Gainera, gazte asko datoz atzetik, eta etorkizun ona ikusten diot. Euskara bera okerrago dago bertsolaritza baino. Gazteek gero eta okerrago hitz egiten dute euskaraz, "atzo ikusi nizun" eta antzerakoak esanez. Bertsolaritza, berri, osasuntsu dago. ◀

## **Iritzia ▶**

Joxean Agirre

▶ **'Gara'-ko kazetaria,**

**Kultura sailean, eta**

**'Joxe Agirre. Mozketaren maisua' liburuaren egilea, Jexux Muruarekin batera.**

**Azpeitiarra da Joxean**

**Agirre (1949), Oñatz auzokoa, baina Zarautzen bizi da**

# **Basarri aurreko bertsolaria**

**O**raindik orain *Berria*-n Ramon Olasagastik Joxe Agirreri egindako elkarrizketa batean izenburu bikain batek erakarri zuen nire arreta. "Eskolarik gabe, eskola sortua" zioen izenburu horrek. Bururatzen zaizkigu tarteka kazetarioi gezurra izan arren idatzi beharreko izenburuak eta horietako bat da Olasagastirena, gezurra izanik ere ederra delako ipini beharrekoa, Joxe Agirrek ez baitu eskolarik sortu, alderantziz, desagertu zen eskola bateko azken ikaslea baita, Basarri aurreko bertsolaria.

Haatik Joxek berak Uztapideri dion mirespena, endoiarra Basarriren tren berrira aise igo bazen ere, aurrekoa, eskola zaharrekoa izaten jarraitu baitzuen gauza askotan. Geroztik, Basarri geroztik alegia, bertsolaritzak bide luzea egin du, sagardotegietatik atera eta ia-ia unibertsiteraino. Jantzi, dotoretu eta edertu ere egin da, baina kultura idatzira arrimatu ahala, kutsatu ere bai, ahozkoaren grazia asko, zakartasun

pixka bat eta orain mende bat bertsolaritzak zuen malditismo puntu hura galtzeraino.

Joxe Agirreren bertsokera ezin da ulertu, bestalde, orain mende erdibat pasa nekazari giroko euskal gizartean auzoek zuten indarra kontuan izan gabe. Auzoek auzoen kontra zuten tribalismo gisako hori kulturala zen gehienbat: apustuen bidez erabakitzen ziren lehiak jeneralean. Auzo bakoitzak zituen bere kirolariak, bere bertsolariak, bere erromeriak. Giro horretan egin zen bertsolari, eta kirolari ere bai noski, Joxe Agirre. Bertsoa elkarrizketa gisa ulertzen dugu guk gaur. Talka eta norgehiagoka gisa ulertzen zuten orduan. (Bestalde, hori ere ez da hain antigoalekoa eta hain gurea: New Yorkeko auzoetan gazte taldeek antzera erabakitzen dituzte beren arteko konponezinak).

▶ **GLOBALIZAZIOAK.** Gero etorri dira globalizazioak. Komunikabideei esker, neurri handi batean euskal gizartea globalizatu egin da. Joxe Agirre Euskal Herri osoko bertsolari da eta izan da, baina aspaldiko bertsolari arraza hartako oinordeko izateari utzi

gabe eta horrexegatik egiten zaigu hain miresgarri, hain eder.

Haitz artean jaio izanak gogortuko zuen beharbada, harrobi batean lan egiteak lakartuko zion agian izaera, baina adinak, aitontzeak eta bertsolaritzan aurkitu dituen lagun ugariak samurtu egin diote bihotza, eta bikoiztasun horrek egiten du gizona hain maitagarri.



Joxean Agirre eta Joxe Agirre, Oranda baserri inguruetan. BERTSOLARI ALDIZKARIA

# ARRISKUA

## 50 metrora

Sistiaga erreka bidean dagoen harrobia handitzen ari dira, eta baserritar batzuei atariraino helduko zaie laster

► Testuak eta argazkiak: Ihintza Agirretxe

**L**oiolako basilika barrua egiteko sortu zen Sistiaga erreka harrobia, eta ordutik hona harri ugari atera izan da bertatik. Gaur egun inguruko harrobi bakarra da. Orain 10-15 urtetik Altuna y Uria enpresak du bere esku ustiapena; aurretik, beste hamar bat urtean, Eskuztak izan zuen. Baina harrobia handitzen doa eta gero eta arazo

gehiago ditu inguruko baserritarrek, handitzeko inguruko lurak behar dituelako.

Altuna y Uria enpresa harrobia goraka, Oñatz aldera handitzen ari da, eta inguruko lurak hartzen. Horrela, Keixetako bi etxebizitzak eta lur horiek erosi nahi ditu, baina ez da baserritar edo lurjabeekin ados jartzen. Baserritarrei lurak erosteko eskain-



## Keixeta

Argazki handian ezin daitezke ondo ikusi Keixeta bi baserriak, baina hortxe daude, harrobitik gertu-gertu, edo harrobia baserrietatik gertu. Arriskuan daude baserriak. 50 metrora jarri dizkiete harrobiko hesiak.

tza egin die, baina baserriar gehienak ez daude ados; 17 lurjabeetatik hirurekin baino ez da iritsi da akordiora euren lurrak erosteko. Eta gaineran izateko guztiak orain urtebete inguru salaketa jarri zioten.

"Salaketa bi bidetik dago bideratua. Alde batetik, aktibitate baimenari dagokiona; izan ere, uste dugu ez dituela bete-

tzen eskaturiko guztiak. Bestetik, lurren okupazioari dagokiona dago", esan diote baserriarren ordezkariak Uztarriari.

"Apirilaren 12-17 bitarteko astean hesia jarri ziguten enpresa-koek —diote Kerexetakoek [Keixeta]—, eta hesi horiekin beraiek okupatu nahi dituzten lurrak markatzen dituzte. Gurre baserrietik 50 metrora jarri dituzte.

Orain edozein unetan sar daitezke gure lurretan eta zulatzen hasi. Denera 20.000 hektarea inguru okupatu nahi dizkigute. Gainera, hesia jartzeko ere gure lurretan sartu dira eta zuhaitzak bota dizkigute".

Altuna y Uriako jabeak, aldiz, ez du horrelakorik esaten; "Gure produkzioa beste eraren batera egin ahalko banu, laster asko aldegingo nuke Sistiaga errekatik. Niri ere ez zait horrelako arazoetan sartzerik gustatzen. Baina hemen baserriarrek lapurreta egitea besterik ez dute nahi. Biktimarena egiten ari dira eta hemen ni naiz biktima bakarra. Nik hain zela bateko metro batetik 700 pezeta inguru eskaintzen dizkiet, eta, begira,

neuk hortxe, harrobitik pixka bat gorago, metroko 30 pezeta ordainduta erosi dut lur sail bat. Gainera, salaketa galtzen badut, harrobia itxi eta beste nonbaitera joango gara. Ezin dut ordaindu baserriarrek eskatzen didatena. Hori lapurreta, besterik ez".

Altuna y Uriakoak dio enpresa legearen barruan ari dela jokatzeko. "Guk harrobia martxan izateko Udalak eta Eusko Jaurlaritzak eskatzen dizkiguten lizentzia eta paper guztiak ongi ditugu. Jaurlaritzari ere ez zaio komeni guk harrobia ixtea. Izan ere, Deba ingurutik hasi eta Donostiara bitartean gurea da harrobi bakarra. Ez dago besterik, eta gustatu ala ez gustatu, harrobiak beharrezkoak dira".



# hamar urteko BIDAIA

Lakrikun antzerki taldeak hamar urte beteko ditu aurten, eta dena ez da izan taulako antzerkia; kanpoko ere izan da...

► Testuak: Ihintza Agirretxe ► Argazkiak: Lakrikun

**1 Prestaketa.** Irten lanetik eta antzerkia prestatzera. Ofiziotik afiziora. Talde amateur baina Lakrikun sorreratik bertatik (1994). "Diziplina ere behar da", diote. Eta pazientzia. Eta umorea. Eta... "Soreasun geuden entsegu orokor baten amaieran –dio Martin alegriak–, la goizeko ordubatak ziren eta Idoia Uranga zuzendaria denei errepasoa ematen ari zitzaigun. Denok hobeto egin beharrekoa edo zuzendu behar genuena entzuten ari giren ordu txiki haietan... Ni antzezlanean italiarra nintzen, eta halako batean Idoiak: 'Aizu, Martin, eta zuri italianoa ahazten ari zaizu!'. Bai, bai...". Eta dena ederki prestatu baina arazoak taula gainean ez, baizik eta...

**2 Joaneko bidaia.** ...taulatik kanpo arazoak sarri. Ez dute ahaztuko behin Olaberri eginiko bidaia. Larunbat batean han zuten emanaldia eta kamioi batekin zeuden geldituta trasteak eramateko. Baina kamioia hiru tonako karga zuela topatu zuten. Ez zutenez beste irtenbiderik, gauzak kamioian sartu eta han abiatu ziren Olaberri.

Aurretik beste bi taldekide abiatu ziren autoan. "Hauek iritsi ziren baina kamioia ez zen ageri", diote. "Pasatu ordubete, bi ordu eta arrastorik ez, larritzen hasi ginen eta kotxea hartu eta han joan ginen bila. Abiatu eta segituan, kilometro eta erdira-edo aurkitu genuen kamioia, baina aldapa batean ezin igota. Hiru alditan saiatu ginen behera jaitsi eta inpultsoa hartu eta gora egiten, baina ezin. Azkenean, beste aldetik zetorren furgoneta handi samar bat gelditu, azaldu zer gertatzen zitzaigun eta trasto denak hara sartu genituen, kamioia hustuta aldapan gora igotzeko. Baina horrela ere ezin. Azkenean, kamioia furgonetari soka batez lotu eta han joan ginen gora". Eta iritsi ziren Olaberri, jantzi arropak, prestatu dekorazioa eta...

**3 Hasi eta...** Baina egun maripartatua ez zen bukatu. Herri txikietan beti izaten da ikusle asko, Olaberria ere txikia da, baina egun hartan hamalau lagun besterik ez ziren joan antzezlanak ikustera. "Gure, ustez, arrazoi nagusia orduan Eurovisionen Rosak irten zuela izan zen".



Lakrikun taldekoak antzerkian, prestatzen...

**4 Bueltako bidaia.** Bueltakoan, berriz, kide batzuek autoa ezin izan zuten martxan jarri. Beste kotxe bati pintzak jarri eta saiatu ziren, baina ezin. Etsita, tabernan taldekiderik gelditzen al zen begiratzen joatea erabaki zuten. Inor ez zela eta etxerako bidea hartzea erabaki zuten, baina ez azkenengo aldiz autoa arrankatzen saiatu gabe. Eta orduan hasi martxan! Zuma-

## Laburpena

Lakrikunekoek hamar urte hauen laburpen antzeko batekin obra berria egiteko asmoa dute. Uztarriaren III. Kulturaldian zehar.

rraga eta Urretxu zeharkatu eta kotxe hori bat-batean gelditu zitzairen. "Hasi arrankatzen eta ezin. Aldapa behera zenez bidea, autoa bazihoan, ordea". Baina autoa makal zihoala eta Martin eta Iñaki Bergara *Pio*-rizer bururatu eta bakoitzak hanka bana atera autotik kanpo eta han joan ziren hankei emanez behera. Jakina, horrela etxera ezin zirela iritsi oharu ziren eta gelditzea erabaki zuten. "Telefonorik ez genuen. Ingurura begiratu eta ibaiaren bestaldean gizon bat ikusi genuen. Kontatu zer gertatu zitzaigun, hark telefonoa utzi eta beste taldekide bati deitu genion. Eta horrelaxe, lagunok". ◀



## **GERNIKAKO ARBOLA GUREAN.**

Apirilean jakin zen Gernikako arbola zimeldu egin dela. Azpeitian badago haren adaskarik. 1904ko azaroaren 21 ean Inazio Fort alkateak foruak aldarrikatzeko arbola jartzeko eginiko proposamena onartu zen, eta, udal aktetan ageri denez, astebetera eginiko batzarrean, Sortzez Garbi egunez, abenduaren 8an, landatzea erabaki zuten. 1912an lekuz aldatu zuten, eta gaur pilotalekuan dago. Argazkian, berriz, aurretik, Iturritxiki parean ▶ Testua: Ihintza Agirretxe ▶ Argazkia: 'Historias de Azpeitia' liburua

## Efemerideak ▶ maiatza



Urola ibaiaren ondoko garai bateko Azoka plaza estalia.

# astakiloak bai baina ARDORIK EZ

**Ez zen giro herrian: ardoa debekatu zuten  
Nuarben eta animaliak herrian**

▶ Testuak: 'Azpeitiko efemerideak' liburua (Imanol Elias-Uztarria)

## MAIATZAK 1 ▶

**Azoka estalia.** 1899an, Azoka plaza estalia Urola ibaiaren gainean egitea erabaki zenez, gobernadoreari baimena eskatzea onartu zen.

## MAIATZAK 8 ▶

**Alkohola debekatuta.** 1871n herrira, pattarra, likoreak eta izpiritu edariak ez ezik, Nuarben ardoa eskusiboki saltzea debekatu zuen Diputazioak gutunez. Erabakia hartu zenean, kontribuzio gehien ordaintzen zuten bi herriar bildu ziren agintariekin.

## MAIATZAK 18 ▶

**Astakiloak besterik ez.** 1739an herrian ganaduak edukitzeari buruz 1704 eta 1724an hartutako erabakiak berriro onartu ziren. Sanjoanak bitartean jarri zuten, astakiloak ez beste ganadu guztia herritik kanporatzeko epea. Inazio Segurola eta Sebastian Legarda izendatu ziren herriko etxe guztiak ikusteko, leku horietan tximiniak jarri. Agintariak agindutako obrak jabeen egina-razten saiatu ziren.



Astoa . IHINTZA AGIRRETXE

## MAIATZAK 20 ▶

**Gastu gehiegi.** 1793an, soldaduei egunean erreal bat, ogia eta ardoa ematen egin zituen gastuen berri eman zitzaion Diputazioari. Herritarrei armak erabiltzen erakusteko egiten ari ziren gastu handien berri ere bai, argi eta garbi azalduz horretarako nahikoak izango zirela bi aste, kontuan izanik batez ere herri batzutan igande eta jaiegunetan bakarrik egiten zirela ariketak. Eran-tzuna jaso bitartean, guztia bertan behera uztea erabaki zen. ◀

## Pertsonaia ▶

## JUAN ANTONIO LARRAÑAGA.

Orain dela hamar urte, maiatzaren 21ean, Lagun Onak Futbol Taldeak omenaldia egin zion Juan Antonio Larrañaga, Lagun Onakeko bertako eta Realeko jokalaria oihari. Realaren eta Bosniako selekzioaren arteko partida jokatu zen orduan Garmendipen.




## Datua ▶

# 1994

## FUTBOLA ETA MUSIKA.

Maiatzaren 6an hamar urte beteko dira Lagun Onak Futbol Taldearen ereserkia inaguratu zenetik. 50. urtemuga ospatzeko egin zen musika jaialdian, Jose Luis Frantzesenaren musika eta Xabier Euzkitzeren letrarekin osatutako kanta aurkeztu zen.

## Argazkia ▶



## ATERPEAREN 20. URTEURRENA.

Maiatzaren 27an, 20 urte beteko dira Xoxoteko aterpea inauguratu zenetik. Lagun Onak Mendi Bazkunak ireki zuen. Iaz goitik behera konpondu eta berriro ireki zuten. Urte hauetan bisitari ugari izan dituzte, bai pasaeran, baita bertan egun batzuk pasatzen ere.

Kontua da... ▶

## Herriaren ondarea



Imanol Elias  
Odriozola

**O**ndare handiak zituen Azpeitiko herriak bera sortu zenean, 1310. urtean. Batez ere, herritarrek erabiliko zituzten lurraldeak, agintariak administraturik ordea.

Baina lehen unetik sortu zitzaizkion gastuei aurre egiteko arazoak herriari. Batez ere, ibaiari bere bidea egokituz inguruan etxebizitzak eraikitzeke, harresiarekin guztia zeharkatzeko... eta beste hainbat gauzatarako izango zituzten arazoak.

Beraz, zerbait saldu beharrean zegoen herria. Ondorengo urteetan sekulako gerrateak sortuko ziren, eta derrigorrezkoa egingo zitzaion Gipuzkoaren mugak defenditzeko gudariak prestatzea, armak eta janariak erostea... eta ondareak saldu beharrean egon zen. Lurraldeak erosten ahalegintzen ziren herriko jauntxo eta sendirik indartsuenak, beraitan baserriak eraikiz, ondoren errentan jarri eta

horrela lan handiegirik gabe aberastasuna pilatzen joateko.

1850. urteko irailaren 16an, azpeitiar agintariak zerrenda bat sinatu zuten. Zerrenda hark garbi agertzen du zer-nolako ondarea gelditu zitzaion Azpeitiko herriari urteak igarotzean, bakoitzaren balioa eta sortzen zuen urteko errentaren berri ematen baitu.

Herriaren ondare guztiak 162.430 errealeko balorea osatzen zuten eta urtean 1.290 erreal osatzen zuten errenta lortzen zuten.

Zerrendaren amaieran agertzen zaigu honako ohar hau: herriaren gainontzeko lurralde txikiak eta gutxiak, 1821 eta 1822. urteetan eta 1823aren zati batean lapurtuak izan ziren, Udalak berak izendatu zituen ordezkarien aldetik lurraldeak saldu eta eskriturak egitean.

Azken ostikada bada, herritarrak berak...

**Garai bateko Azpeitia ▶ Mari Zubiaurrek kontatua**

## emakume GIDARIA

**Gaur egun edozeinek du gida baimena, baina oraindik arraroa egiten da adineko emakume bat bolante aurrean ikustea**

▶ Testua: Iñintza Agirretxe

**G**aur egun auto ugari eta ederrak daude edozein lekutan, inor ez da konformatzen edonolako kotxearekin. Mari Zubiaurrek orain 30 urtetik gora atera zuen gida baimena eta orduetik, bidaia luzerik egin gabe, hemen dabil alde batetik bestera.

“Garai hartan gizonak animatu ninduen autoko karneta ateratzera. Esan zidan probatzeko behintzat ateratzen. Ezin banuen ezin zela, baina saiatzeko”.

Horrela eman zuen izena eta 30 eguneko moduloa izaten omen zen orduan. “Nik nahiko berandu atera nuen, dagoeneko heldua nintzela. Eskolan ez zeu-

den emakume asko, baina ez zen oso arraroa ere. Ez zitzaidan asko kostatu ateratzea, erraz atera nuen”. Baina nahiz eta erraza egin, lehen azterketa ez zuen gainditu eta hurrengo astean berriro egin behar izan zuen. “Lehenengo azterketara joan nintzenean, aldamenekoak galdera bat egin zidan eta nik besterik gabe

**“Astotegian kotxea aparkatu eta botikara joan nintzen; bueltakoan kotxea falta zitzaidan, lapurtu egin zidaten”**

**MARI ZUBIAURRE ▶**



Garai bateko autoa. IEA


erantzun egin nion. Zorte txarra izan nuen eta han zaintzen zue-nak ikusi egin ninduen eta txartela entregatu eta aldegiteko esan zidan”. Baina lotsa ematen omen zion guztien aurrean jaiki eta horrela aldegiteak eta bertan gelditu zen denbora bukatu arte.

“Orduan hiru azterketa egiten ziren: teorikoa, industrialdea eta errepidean. Teorikoa amaitu eta kotxean sartu nintzen, baina han zegoen lehen zaintzen zegoen gizona eta, beraz, azterketa ez zidan gainditu”.

Lau kotxe izan ditu urte haue-tan, eta izan ditu bere gorabehe-rak. “Kotxe bat lapurtu egin zidan Astotegian. Botikara joan bi-tartean, kotxea irekita utzi nuen eta lapurtu. Ondoren, Deskargan agertu zen, bazterra jota”.

Behin soilik gelditu omen dute ertzainek eta bertan erosketak egitera etxetik, Lasaoetik Azpeitira zetoirela alkoholemiako frog-a egin behar ziotela eta. “Gosaltze-rakoan bokadilo bat ardo pixka batekin-edo ez al nuen hartzen galdetu zidaten, gainera”. ◀





**Pasarte kodetua ▶**



|               |  |               |                |                |  |  |                |  |                |
|---------------|--|---------------|----------------|----------------|--|--|----------------|--|----------------|
| <b>E</b><br>1 |  | <b>N</b><br>3 |                |                |  |  |                |  | <b>A</b><br>10 |
|               |  |               | <b>K</b><br>14 | <b>I</b><br>15 |  |  | <b>Z</b><br>18 |  |                |

|    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |    |
|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|----|
| 1  | 7  | 2  | 10 | 15 | 12 | 15 | 14 |    | 1  | 18 |    | 11 |
| 16 | 1  | 3  | 10 | 14 |    | 8  | 1  | 3  | 1  | 7  | 10 | 14 |
| 19 |    | 4  | 10 | 9  | 16 | 3  | 15 | 14 |    | 1  | 12 | 1  |
|    | 1  | 18 |    | 11 | 16 |    | 15 | 18 | 10 | 7  | 1  | 3  |
|    | 1  | 7  | 2  | 10 | 15 |    | 8  | 10 | 7  |    | 14 | 10 |
| 4  | 1  | 10 | 3  |    | 10 | 9  | 16 | 12 | 12 | 10 |    | 16 |
| 14 | 10 | 7  | 18 | 1  | 3  |    | 15 | 14 | 16 | 2  | 7  | 1  |
| 3  |    | 11 | 16 | 11 | 10 | 3  | 1  | 10 | 3  |    | 8  | 10 |
| 11 | 10 | 14 | 15 | 7  |    | 3  | 15 | 12 | 1  |    | 4  | 1  |
| 14 | 16 | 10 | 3  |    | 3  | 10 | 9  | 19 | 1  | 4  | 10 |    |

**Soluzioak ▶****Zein da hau? ▶****HITZ GEZIDUNAK**

|   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |   |
|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|---|
| A | L | A | B | ● | K | A | K | A | R | K | ● |
| I | ● | I | ● | I | I | L | ● | I | R | A | S |
| L | A | S | E | G | ● | I | A | Z | ● | N | ● |
| U | Z | I | ● | A | U | T | Z | E | A | I | B |
| E | T | A | ● | Z | A | T | A | R | A | H | ● |
| ● | U | K | I | R | T | ● | L | E | K | I | M |
| S | A | ● | A | O | N | I | M | ● | O | ● |   |
| U | R | U | B | N | A | R | A | ● |   |   |   |
| A | R | A | B | I | B | A | A |   |   |   |   |
| ● | A | ● | S | ● | A | ● | I | ● |   |   |   |

**PASARTE KODETUA**

"Etsarik ez duenak benetako lagunik ere ez du iza-  
ten. Etsai bat kalean agurra ukatzen ikusten du-  
nean badakit nire lekuan nagoela." **Pako Aristi.**

**UZTARRIAREN APIRILEKO ARGAZKI LEHIAKETA****zein da hau?****Nagore Aranburu****irabazlea**

**Jon Ander Ezeiza** Uztarriako bazkidea izan da argazki lehiaketako 50. irabazlea. **Martinez paperdendako** txartela irabazi du sari gisa. Argazkian, Jon Ander —ezkerrean— eta Pakita Albizu dendaria.

**ERANTZUTEKO EPEA ▶**

Maiatzak 20 (osteguna)

**NORA BIDALI ▶**

Julian Elorza Hiribidea 4, behea

**ZEIN DEN ADIERAZI ▶****ZURE IZENA / TELEFONOA ▶****IRABAZLEARI SARIA ▶**

Zerbitzua (Motx ileapaindegia)

**PARTE HARTZEKO  
BALDINTZA ▶**

Uztarran bazkide izan behar da

**LUBA**

- AHOLKULARITZA FISKALA,  
LABORALA, KONTABLEA  
- ASEGURUAK  
- FINKEN ADMINISTRAZIOA

Enparan kalea, 30

Tel.: 943 15 75 25 Fax.: 943 15 72 75  
e-mail: luba.ase@euskalnet.net

**KIRURI**

**K**

**J A T E T X E A**

Loiola hiribidea, 24

**LOIOLA - AZPEITIA**

Tlfnoa.: 943 81 56 08

Faxa.: 943 15 03 62

**HIRUSTA**

**Ezkontza elizkizunetarako musika**

Idoia 687688685 - Nerea 678201043 - Esther 943080367

## Zaindu ▶ Indar eza

Julian  
Bereziartua



**G**ure organismoak 501 gihar ditu; muskuloko ahuldadea indar faltari edo ezari esaten diogu. Indar eza, gaixotasun sistematikoengatik edo nerbio edo zirkulazio-aparatuarengatik sortzen da, denetik izaten da. Batzutan diagnostikoa oso zaila izaten da, traumatismoek, diabetesak, bitamina ezak edo beste mila arazo eta gaixotasunek sorraraz dezakete eta. Gaur egun zenbait aparailu gure esku ditugu –eko-grafoa edo erresonantzia magnetikoa, adibidez– eta laguntzaile baliotsuak dira diagnostikoa egiteko garaian.

Ez dugu ahaztu behar askotan jatorri genetikoa izaten dela, herentziazkoa, nahiz eta, beharbada jubilatzeke garaira heldu arte, ez azaldu sintoma txikienik ere. Askotan tratamendu egokia aurkitzen da baina beste batzutan oraindik ere baliabiderik gabe aurkitzen dira sendagileak. Kasu horietarako gogora datorkit ondorengo esaldia: "Sendagileak gutxitan sendatzen du, arindu dezentetan, baina beti kontsolatu egin behar du."

Azken urteetan, gizakion genomari buruz edo gorputzaren mapari buruz izan diren aurrerape-nak ikusirik, espero dezagun hamar urteren barruan gai horiez jakintsu izango garela eta saihestuko ditugula gaixotasun horiek.

## BEÑAT LIZASO ▶ bertsolaria

**Plaza bat.**  
Edozein.  
**Bertsolari bat.**  
Aita [Xebaxtian].  
**Doinu bat.**  
Zortziko handi bat.  
**Bat-batean edo paperean?**  
Bat-batean.  
**Bikotearekin edo gabe?**  
Bikotearekin.  
**Eta bikotekide?**  
Leire Ostolaza.  
**Bertso afaria edo txapelketa?**  
Bertso afaria.  
**Bertsoak aurretik ala ondoren?**  
Ondoren.  
**Mikroarekin edo gabe?**  
Mikroarekin.  
**Eta gaia?**  
Umorezko edozein.  
**Aita ala aitona Joxe?**  
Aita.  
**Bertso ofizialak ala extraofizialak?**  
Ofizialak.

▶ Testua eta argazkia: Ihintza Agirretxe



## Abizena ▶ Bastida

### Armarria.

Jatorrizkoa; fondo berdean zilarrezko dorre karratua, urrezko argitzea duela. Eskubitarra, urrezko lehoi bat azurrezko kate batekin dorrearen ate aurre-ra lotuta. Ezkerrera, metal bereko Bastida bat (gerrako makina), gotorlekuaren harresira lotuta, dorrearen leihoa atzean duela. Leihoan jendea azurrezko lantzak eta urrezko burdinekin dorretik sartu-irtenka.

### Banaketa semantikoa.

'Asi', 'sasi' eta 'asti' ere adieraz dezake. 'B' aurretik eta 'da' atzetik dituela

### Esanahia.

Ez dauka jatorri euskalduna. Abizenaren esanahiak indartze edo sendotzea esan nahi du.

### Abizenaren kokapena.

- ▶ Zumaia.
- ▶ Errioxa.

### Abizenaren hedapena.

- ▶ Azpeitia (1773).
- ▶ Zestoa (1635).



## Esandakoa ▶

“Joxe Agirre eta Joxe Lizasorekin gustura kantatuko nuke bertso afariren batean”

**XABIER EUZKITZE ▶**  
bertsolaria eta kazetaria

“Azpeitia oso herri berezia da; hemen egonik ez dirudi euskara galduko denik”

**HIROMI YOSHIDA ▶**  
hizkuntzalaria

## Zenbat ▶

# 1.450

### TREN BISITARI.

Aste Santuetan ireki zen Trenaren Euskal Museoa eta lehen bost egunetan 1.450 bisitari izan zituen.

# Biele



# kutxa

gizarte ekintza

**Gertuko pasadizoa ▶**

# 'Ilanbideak' IKASIZ

**'Iraurgi Saskibaloi Elkartea' liburutik hartua ▶ Argitaratzailea: Iraurgi Saskibaloi Elkartea ▶ 2002. urtea ▶ Egilea: Jon Olaizola**



Iraurgikoak Betharramandarretan. IRAURGI S.B.

## KAPITULUA ▶ Baloia eskuan hartzea ez da bekatua (34. orriadea)

Saskibaloia Gipuzkoa sakoneko bailaran kirol berria zenez, taldekoei etengabe sortzen zitzaizkien arazoak ahal zuten bezala zuzendu beharrean izaten ziren. Buruhaute berezia izan ohi zuten taularekin. Esan bezala, Betharramdarretako jolastokia estali gabekoa izanik, haizearen eraginez edo saskia batetik bestera mugitzean erori zitzaielako, tarteka taulak hautsi egiten ziren, eta aldatu beharra zuten norgehiagoka jokatzeko. Entrenamendurik egin gabe pasa zezaketen, baina astero-ko partida jokatzeko sakratua zen gureentzat. Beraz, burua nekatu beharrean izaten ziren.

Autoan Pogu Azpeitiko tailerrera joan eta batek perretxikotan balebil bezala inguruak zaintzen zituen; arriskurik ez zegoela ikustean, autoan zeuden taldekideei *jokaldia* markatuko zien: haiek autotik atera eta Poguko atarian egoten ziren aglomeratuzko taulak lotzen zituen alanbrea askatu, bat hartu, autoaren sabai gainean kokatu, atzeko leihoetatik besoa atera eta, taulari helduz, disimuloz eraman ohi zuten Betharramdarretaraino. Gero etortzen zen arotz lanaren unea: taula moztu behar izaten zen, birbikinez zulatu... Margolarien beren lana betetzean, hurrengo haize eguna etortzen zen arte. Berehala ikasi zuten, hala ere, ordezko taula batzuk prest edukitzen.

tzen. Eta saskian ipintzen ziren, eskaileratan gora igota; abildadea galanta! Beharko!

Kanpotik etortzen zirenentzako aldalekuak, Aiararen baimenari esker, Betharram Ikastetxeko azkeneko solairuan zeuden; garai hartan gida-baimena ateratzeko azterketak egiten ziren gela beraietan, hain zuzen. Aldalekuak, literalki esanda; beraz, kanpotik etorritakoak behin ere ezin ziren kexatu beste leku askotan gertatzen zen bezala dutxako ura hotza zegoela-eta... dutxatzeko aukerarik ez baitzen eskaintzen. ◀

**Amenabar**  
DENDA

gortinak, ohazalak,  
edredoi nordikoak ...

Eliz-kale, 32-behea - Telf/Fax: 943 15 06 97



**Otamendi**  
Bilvi Denda

Goiko - Kale, 4 - Tfnoa. 81 13 49



**ostadar optika**  
OPTOKIAK - OPTOMETRISTAK

Jose de Artetxe, 17  
Tel. 943-810664  
AZPEITIA

Ibai Ondo, 28  
Tel. 943-850445  
AZKOITIA



Euskal Herria, 34  
20730 AZPEITIA  
Tel.: 943 15 16 40

**Ekain**  
ALBAITARI KLINIKA

Larrialdia:  
943 15 16 40



**EPELDE INMOBILIARIA**

Goiko Kale, 1 - Behea  
Tfnoa/Faxa: 943 15 03 31  
20730 AZPEITIA



A.E.P.I. 20/46



CONSTRUCCIONES  
**ANTZIBAR**  
ERAIKUNTZAK

**Koh Tao**

**OSAGARRIAK**

Foru Ibilbidea, 3 Tel.: 629 688 193  
20730 AZPEITIA (Gipuzkoa)

## Telefono zenbakiak ▶

### TOKI PUBLIKOAK

|                       |          |
|-----------------------|----------|
| Udaletxea             | 15 72 00 |
| Udaltzaingoa          | 15 13 13 |
| Suhiltzaileak         | 112      |
| Azpeitia Lantzen      | 15 71 83 |
| Iraurgi Lantzen       | 85 11 00 |
| Nekazal Bulegoa       | 81 24 85 |
| Iturririkiki Ludoteka | 15 11 79 |
| Zapo Txoko / GIB      | 15 71 61 |
| INEM                  | 15 04 02 |
| Kiroldegia            | 81 30 69 |
| Igerilekua            | 81 41 21 |
| Ertzaintza-Azkoitia   | 08 37 80 |
| Aitonena I            | 81 51 71 |
| Aitonena II           | 81 23 89 |
| Epaitegia             | 02 51 91 |
| Ingurumen Etxea       | 81 24 48 |

### OSASUNA

|                    |          |
|--------------------|----------|
| Anbulategia        | 81 51 00 |
| Anbul.-larrialdiak | 81 12 01 |
| Asepeyo            | 81 44 00 |
| Gurutze Gorria     | 85 32 97 |
| DYA-Donostia       | 46 46 22 |

### KOMUNIKABIDEAK

|                     |              |
|---------------------|--------------|
| Uztartaria          | 15 03 58     |
| Hitza (Azpeitia)    | 81 38 41     |
| Hitza (Zarautz)     | 89 00 17     |
| Azpeitian Zer?      | 81 11 00     |
| Berria              | 943 30 40 30 |
| Gara (Herriak)      | 943 31 69 99 |
| Deia (berriemailea) | 943 72 57 75 |
| DV (berriemailea)   | 943 15 09 94 |
| Argia               | 943 37 15 45 |

### LARRIALDIAK

# 112

|                              |              |
|------------------------------|--------------|
| Nabarra                      | 948 22 71 25 |
| Arrate Irratia (berriemaile) | 81 26 32     |
| Loiola Herri Irratia         | 81 44 58     |
| Euskadi Irratia              | 943 01 23 00 |
| Kaito Telebista              | 81 53 35     |
| Izarratiz Telebista          | 85 13 05     |
| ETB                          | 943 01 17 05 |

### ALDERDI POLITIKOAK

|       |                |
|-------|----------------|
| EAJ   | 81 55 70       |
| Habea | 15 72 00 (138) |

EA  
PSE-EE  
PP

|          |                |              |
|----------|----------------|--------------|
| 81 00 11 | Antxieta Etxea | 81 35 40     |
| 15 72 00 | Kontseilua     | 943 59 12 00 |
| 15 72 00 |                |              |

### SINDIKATUAK

|      |          |
|------|----------|
| ELA  | 81 34 46 |
| LAB  | 15 13 56 |
| EHNE | 81 39 28 |

### KULTURA-EUSKARA

|                         |          |
|-------------------------|----------|
| Euskara Patronatoa      | 81 45 18 |
| Udal Euskaltegia        | 81 19 47 |
| AEK                     | 15 10 89 |
| EHE                     | 15 10 89 |
| Udal Liburutegia        | 15 71 95 |
| Loiolako Liburutegia    | 81 65 08 |
| Uztartaria Kultur Koor. | 15 03 58 |

### IKASTETXEAK

|                      |          |
|----------------------|----------|
| Iraurgi              | 81 02 10 |
| Iraurgi (Betharram)  | 81 16 68 |
| Iraurgi (Milagrosa)  | 81 63 80 |
| Iraurgi (Jesuitinak) | 81 22 49 |
| Ikasberri            | 15 12 46 |
| Karmelo Etxegarai    | 81 26 97 |
| Urola BHI            | 15 02 28 |

### BESTERIK

|                                        |              |
|----------------------------------------|--------------|
| UGLE (Urolako gay-lesbia.)             | 273 posta    |
| Xoxoteko aterpea                       | 58 10 07     |
| Hitzeko Euskara-Komunikazio Zerbitzuak | 665 72 39 79 |

## Farmaziak gauez ▶ maiatza

### 1-2-4-21

Garcia (Azpeitia).  
943 81 12 74

### 3-8-9-20

Etxebeste (Azpeitia).  
943 81 59 74

### 6-18

Aranburu (Azpeitia).  
943 81 13 50

### 5-17-22-23

Zulaika (Azpeitia).  
943 15 03 34

### 7-19-31

Beristain (Azpeitia).  
943 81 19 49

### 10-11-26-27-28

Gisasola (Azkoitia).  
943 02 65 15

### 12-13-14

Azpiazu (Azkoitia).  
943 85 29 89



## Ateak zabalik ▶

### UDALETXEA

|              |             |
|--------------|-------------|
| ▶ Asteguna:  | 09:00-13:30 |
| ▶ Larunbata: | 09:00-13:00 |

### UDALTZAINGOA

|                               |
|-------------------------------|
| ▶ Egun osoz irekita egoten da |
|-------------------------------|

### ANBULATEGIA

|                               |
|-------------------------------|
| ▶ Egun osoz irekita egoten da |
|-------------------------------|

### IGERILEKUA

|                       |                          |
|-----------------------|--------------------------|
| ▶ Astelehena:         | 14:00-21:00              |
| ▶ Beste astegunak:    | 07:00-21:00              |
| ▶ Larunbata:          | 10:00-13:00, 16:00-20:00 |
| ▶ Kanpoko igerilekua: | Ekaina arte itxita       |

### KIROLDEGIA

|                    |                          |
|--------------------|--------------------------|
| ▶ Astelehena:      | 09:00-13:00, 15:00-21:00 |
| ▶ Beste astegunak: | 15:00-21:00              |
| ▶ Larunbata:       | 10:00-13:00, 16:00-20:00 |

### UDAL LIBURUTEGIA

|                                         |                          |
|-----------------------------------------|--------------------------|
| ▶ Astegunak:                            | 10:00-13:00, 16:00-20:00 |
| ▶ Udan (abuztuan itxita) eta Gabonetan: | astegunetan: 09:00-13:00 |

### ZAPO TXOKO

|                       |             |
|-----------------------|-------------|
| ▶ Asteartea-ostirala: | 17:00-20:30 |
| ▶ Larunbata:          | 16:00-20:30 |

## GIZARTE EKINTZA.

Udaletxeko bigarren solairuan aurki daiteke Gizarte Ekintza. Ezinduentzako artikulua alokatzen ditu: oheak, aulki birakariak, eskailera mugikorak... Zortzi artikulua alokatzen dituzte, eta ez da garestia tresna horiek alokatzea. Astegunez egoten da irekita, goizez.

## Garraioa ▶

### ALDALUR

85 27 18

### EUSKO TREN

15 06 77

### GUIPUZCOANA

85 11 59

### PESA

21 26 99

### PIPER ELK.

85 25 87

### TAXIAK

81 13 07

# INFORMAZIOA:

## Makina Erremintaren Institutua

Azkue Auzoa, 1 - 20870 Elgoibar

Telf. 943 74 82 65 - 74 41 32

Faxa. 943 74 41 53

email: nekane@fmh.es

www.imh.es



Eusko Jaurlaritzako Lanbide Heziketako Ikastetxe  
Publikoen sareko partaidea



Izena emateko epea: ekainaren 1etik 9ra, biak barne



# HEZIKETA ZIKLOAK

## GOI MAILA (A eta D ereduak)

- Proiektu Mekanikoen Garapena
- Mekanizazio Bidezko Produkzioa
- Industri Ekipoen Mantenimendua

## ERDI MAILA (A eta D ereduak)

- Mekanizazioa **berria** ★
- Makineria eta Linea Eroanbideen Instalazio eta Mantenimendu Elektro-Mekanikoa

### ATE IREKIAK :

maiatzaren 20 an eta ekainaren 3an,  
arratsaldeko 19etan



IXIAR SAN JUAN

**L.S**

Loiolabide 19, behea

943 81 02 17




ESTETIKA ZERBITZUA

**hitza**

ekarri karrerako giltza  
Uztarriara

(egunkaria zure buzoira errazago banatzeko)

Informazio landu eta argigarria,  
diseinu berritzaile batekin emana



NAROA AZURMENDI ▶ ikaslea Kanadan

# “Aurten, bigarrengo euskal astea antolatu dinagu”

▶ Testuak: Amaia Mendizabal



Naroa Azurmendi, ezkerretik hasi eta bigarrena da; euskal etxean ageri da.



## KANADA-RI BEGIRATUA ▶

**Herrialdea.** Kanada.

31.185.815 biztanle.

**Hiriburua.** Ottawa.

1.010.500 biztanle.

**Montreal.** Hego-

mendebaldean. 3.510.000.

**Industria.** Zerbitzuak eta teknologia berriak.

**Hizkuntza.** Ingelera (%59) eta frantsesa (%23).

**N**aroa Azurmendi azpeitia-rrak zortzi hilabete daratza Montrealean, Kanadako eremu frankofonoaren bihotzean. Bertara Itzulpengintza eta Interpretaritza ikasketekin jarraitza joan bada ere, unibertsi-tatetik kanpo aurkitu ditu bizipe-nik interesgarrienak.

## Nolakoa da zure egun bat?

Astean klase gutxi izaten ditinat, eta, hortaz, denbora asko dinat. Dena dela, hemen izugarritzko hotza egiten din eta ez dun erraza kalera irtetea. Guk aisialdi denbora gehien euskara irakasten ematen dinagu. Ikasleen erdiak euskaldunak edo euskal jatorria dutenak ditun, gainontzekoak euskara ikasteko izugarritzko lana egiten ari diren quebecarrak.

## Euskararen inguruan ekimen batzuk ere egin dituzue, ezta?

Aurten, bigarren aldiz, euskal astea antolatu dinagu Aste Santuan Montrealean. Hainbat ekital-diz gain, asteburuan jaialdi handi bat ospatu geninenan, txalapartaz, euskal dantzez... lagunduta. Igandean Aberri Eguna ospatu geninenan, herri bazkari eta guzti.

## Ikasturtea apirilean amaitu ondoren, zer asmo ditun orain?

Lana edo praktikak egingo ditinat hemen bertan, hori seguru. Behin Montrealean negua pasatuz gero, uda ikusi gabe ezingo gaitun joan! Ekainaren bukaera arte geldituko naun. Euskal Herriko uda ere ez dun makala, eta biak aprobetxatzen saiatuko naun.

## Hor bizi izandako guztitik, zer azpimarratuko hunake?

Hona hizkuntza ikastera etorri baintzen ere, gehien ikasitakoa hizkuntzaz apartekoa dun. Hemen ez haiz atzerritar sentitzen; ez haute hala hartzen. Eta leku batean urtebetez egon behar izanez gero, hori ezinbestekoa dun. Guk eguneroko bizimodua quebecar bezala egiten dinagu. ◀

## HANGO JENDEA.

“Hemengo jendea asko interesatzen dun Euskal Herriaz. Harrigarria dun quebecarrek euskara, euskakaldun eta oro har gure herriarekiko daukaten interesa ikustea. Gainera, kanpotarrak bertako egiten saiatzen ditun, inor ez den atzerritarra hemen.”



► Testuak: Josu Azpillaga-Enekoitz Esnaola ► Irudia: Leire Larrañaga

Herri aldizkarian badago antzeko atalik (lehen Baiten eta orain Uztarrrian, *Euskararen gorabeherak*), "eta, egia esan, hori atal garrantzitsua dela iruditzen zaigu, eragina duelako".

Uztarriaren webeko atal berriak bat egiten du Kontseiluaren *Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa* ekimenaren filosofiarekin. Kontseiluaren ekimenak hiru zutabe ditu:

- ▶ Akordio soziopolitikoak.
- ▶ Gizarte eragileen konpromisoak (Bai Euskarari Ziurtagiria).
- ▶ Norbanakoen konpromisoa.

# konpromiso JANTZIA

Kontseiluak hizkuntza eskubideen aldeko elastikoak atera ditu, eta Uztarriaren egoitzan daude saltzen

**K**ontseilua *Hizkuntza eskubideak! Denon konpromisoa* kanpaina ari da egiten, eta dauzkan ekimenen artean, elastikoak saltzen jarri berri ditu.

**Kamiseta motak.**

► Zazpi daude, emakumezko eta gizonezkoentzat. 1998ko kanpainako beste bi mota ere bai.

**Zenbatekoa.**

► 20 eta 22 euro artean. Lehen-goak, berriz, sei eta 15 eurokoak.

**Saltzen.**

► Uztarriaren egoitzan daude (Julian Elorza Hiribidea 4 behe, eskubia).



## Atal berriaren ezaugarriak

**Atal berriarenak.** Artikulu motzak izango ditu. Lau kategoriatan banatuak:

► Gora (gezia gora). Euskara egoki tratatzen duten ekimenak goraipatzen dituztenak (erakusleioa egoki, publizitatea euskaraz eta maila txukunean...).

► Behera (gezia behera). Euskara errespetatzen ez dutenak (euskaraz hartzen ez gaituen administrazioa, mediku erdaldunak, euskara eskasean idatzitako kartelak...)

► Iruzkina. Euskararen inguruko aipamen txiki bat, inolako gezirik gabe.

► Galdera ikurra. Euskararen inguruko galdera bat.

**Artikulu bakoitzarena.**

Artikulu bakoitzak, ezaugarri hauek izango ditu:

► Motza izatea (pare bat pasarte gehienez). Inork luzeagoa eta landua badu, idatzi Iritzia bezala uztarria.com/albisteak atalean.

► Ikono bat edukiko du, kategoriari dagokiona (gezia gora, behera, galdera ikurra...).

► Argazki txiki bat gehitzeko aukera.

► Erantzunak emateko aukera izango da (agian hasieratik ez).

**Artikulu denak.** Guztiak [www.uztarria.com/euskara](http://www.uztarria.com/euskara) helbidean erakutsiko dira, oso-osorik. Baita erantzunak ere, izanez gero.

**Artikulu zaharrak.** Artxibatzen joango dira ([uztarria.com/albisteak/bezalaxe](http://uztarria.com/albisteak/bezalaxe)).

**Azken artikulua.**

[www.uztarria.com](http://www.uztarria.com)-eko azalean erakutsiko da.

makina bat denda, enpresa, taberna, elkarre... beren esparruan euskararen aldeko pausoak ematen ari dira (kartelak euskaraz jartzen, kontratuak, idatziak...) eta ahalegin horren berri eman izan du Uztarriak aldizkarian, eta webgunean ere eman nahi dugu".

Uztarriak ez ezik, edozein herri-tarrek ere badu aukerarik bere iritzien, kexen, laudorioen... berri emateko [www.uztarria.com/euskara-n](http://www.uztarria.com/euskara-n). Halakoa baita webgunea:

irekia eta parte-hartzailea; eta arrakasta handia du, egunero mila orrialdetik gora bisitatzen direlako.

Bi arlo ditu atalak. Batetik, orain ere badagoena: edukiak; euskararen inguruko edukiak ordenatzen dira bertan (aldizkariak, hitzaldiak, eduki interesgarriak...). Eta, bestetik, atal berria: hizkuntza eskubideak. "Jendea animatu nahi dugu azken horretan parte hartzera". ◀



Euskaldunagoa?  
Oso zaila dago.

Independenteagoa?  
Ez da erraza.

Pluralagoa?  
Zein bezain plurala?

Hobea?  
Hoberena zen.

baina  
hobetuko  
dugu  
zure laguntzarekin

**berria berri**

Akzioei buruzko informazioa:  
[www.ektza.net](http://www.ektza.net)

# 61.520

## EURO AZPEITIAN.

Apirilaren bukaeran amaitu zen ofizialki, *Egunkaria* itxi eta gero euskarazko egunkari nazionala sortzeko hasi zen *Berria berri* kanpaina, eta Azpeitian 61.520 euro bildu dira akziotan. 59.000 euro biltzea zen helburua. Dozenaka eta dozenaka azpeitiar egin dira akziodun. Mila esker haiei denei, eta Egunkaria batzordeari, berriz, zorionak; bikaina lana!

## Euskararen gorabeherak ▶



### **GORA. Autoa saltzeko hizkuntza**

Dagoeneko apenas ikusten den autorik salgai espainolezko karteltxoak jarrita. Beste pauso bat, beraz. Goiko autoaren jabeak emandakoa bezalakoa.



### **BEHERA. Zuloa euskarari**

Kalea konpondu eta txukundu, eta euskara zulatu eta euskaldunon eskubideak moztu. Horixe egin zuen Eliz atarirako bidean obretako kartel hori jarri zuenak.



## Behatokia ▶ (euskararen eskubideen urraketak salatu ahal izateko telefono zenbaki berezia)

 **902 19 43 32**

## Eskubideez ▶

“Eskubidea dugu kontsumitzaile gisako informazio eta publizitate oro euskaraz jasotzeko (errotuluak, dokumentazioa, etiketak)”

Euskal Herrian Euskarazen  
'Bideak' eskuliburutik hartua;  
Uztarrian dago edonoren eskura

## Bota lasai ▶

Apirilaren 27an hizkuntza eskubideen inguruko mahaingurua antolatu zuen Uztarriak, eta herriko ezagunak eta eragileak mahaian jarri zituen. Esandakoak:

“Pilotan hitzez bai, euskararen alde gaude, baina eguneroko errealitatean erdara da nagusia”.

▶ **Kepa Peñagarikano**  
(pilotari profesionala)

“Arropetakoek, makilajekoek, kafetegian... erdaraz egiten dute. Penagarria da egoera hau”.

▶ **Pedro Otaegi**  
(‘Goenkale’-ko aktorea)

“Nahiz herriko enpresetan ahozko harremana euskarazkoa izan, idatziz gaztelania da nagusi”.

▶ **Xabier Agirretxe**  
(ELA sindikatuan Urola-Kostako enpresa txikien arduraduna)

“Hamasei medikuetatik bi gara euskaldunak. Justizia administrazioan gero eta langile gutxiago doaz euskara ikastaroetara”.

▶ **Lurdes Goenaga** (medikua  
Donostiako Epaitegian)



# Sare@informatika

Telekomunikazio Zerbitzuak & Informatika



Eskaintzen ditugun zerbitzuak eta produktuak

## Ordenagailuen eta portatilen salmenta



Markako PC-ak

Gure markako PC-ak

Portatilak

## Informatika zerbitzu teknikoa



Zerbitzu Tekniko azkarra

Mantenu Kontratuak

## Periferikoen salmenta eta konponketak



Multifuntzioak

Formatu handiko inprimagailuak

Laserak

## Sare informatikoen instalazio eta kudeaketa



Sareen diseinua eta muntaiak

Sareen mantenua

Serbitzariak

## Kontabilitate kudeatze programen ezartzea



Kudeaketa programak

Kontabilitate

Nominak

## WEB orrien diseinua eta mantenua



2002 Corporate

2001 Tienda

2001 Escaparte

## Erregistratzaile, balantza eta TPVen salmenta



## Informatika aholkularitza



Euskaltel Leihoa




Komunikazio osoa puntu bakarrean  
zure etxean

☎ - Nahi beste dei probintzia barruan hilean 7 €

@ - 24 orduko tarifa finkoa 22 €

☐ - Goi mailako irudi kalitatea eta 17 kanal



Azpeitia  
Pablo VI 19 behea  
943 157 321

Azkoitia  
Julio Urkixo 10 behea  
Telf: 943 85 36 60

Zarautz  
Kale Nagusia 1 Behea  
Telf: 943133385

Banatzaile Ofiziala  
**Euskaltel**

**Babesa**  
gazte moda

**DESBERDINDU ZAITEZ!!**

udaberria - udara 200

Xaninandei anizuen gatzandien! Tirbitarte 9 Tel 943 151369